



# EUSKADIKO NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

Herri-partaidetza

2018ko maiatzaren 21a



## Aurkibidea

|   |    |
|---|----|
| ZIOEN AZALPENA .....  | 5  |
| I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK.....   | 9  |
| 1. artikulua Xedea.....   | 9  |
| 2. artikulua Helburuak.....   | 9  |
| 3. artikulua Printzipioak.....  | 10 |
| 4. artikulua Definizioak.....   | 11 |
| 5. artikulua Eginkizun soziala.....   | 19 |
| 6. artikulua Herritarren betebeharrak eta eskubideak.....   | 19 |
| 7. artikulua Politika sektorialetan integratzea.....  | 20 |
| 8. artikulua Natura-ondarea eta klima-aldaketa.....   | 20 |
| II. TITULUA ESKUMEN- ETA ANTOLAMENDU-ARAUBIDEA.....   | 22 |
| 9. artikulua Administrazio publikoen eskumenak.....   | 22 |
| 10. artikulua Administrazioen arteko lankidetzarako mekanismoak.....  | 22 |
| 11. artikulua Ingurumeneko Aholku Batzordea.....  | 23 |
| III. TITULUA NATURA-ONDAREA EZAGUTU, PLANIFIKATU ETA BABESTEKO TRESNA OROKORRAK.....                                      | 24 |
| I. KAPITULUA. EUSKADIKO NATURA ONDAREAREN INBENTARIOA.....  | 24 |
| 12. artikulua Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioa.....  | 24 |
| 13. artikulua Euskadiko Naturaren Informazio Sistema.....   | 25 |
| 14. artikulua Euskadiko Naturaren Ezagutzeko Sarea.....   | 25 |
| 15. artikulua Euskadiko Natura Ondarearen Egoerari buruzko Inbentarioa.....   | 26 |
| II. KAPITULUA. NATURA ONDAREA BABESTEKO EUSKAL ESTRATEGIA.....  | 26 |
| 16. artikulua Xedea eta edukia.....   | 26 |
| 17. artikulua Lanketa.....  | 27 |
| 18. artikulua Indarraldia eta irismena.....   | 27 |
| III. KAPITULUA. BALIABIDE NATURALAK ANTOLATZEKO PLANA.....  | 27 |
| 19. artikulua Kontzeptua.....   | 28 |
| 20. artikulua Edukia eta lurralde-eremua.....   | 28 |
| 21. artikulua Indarraldia.....  | 29 |
| 22. artikulua Irismena.....   | 30 |
| 23. artikulua Lantzeko eta onartzeko prozedura.....   | 30 |
| 24. artikulua Kautela-babesa.....   | 31 |
| 25. artikulua Habitat mehatxatuak.....  | 32 |
| IV. KAPITULUA. NATURA-ONDAREA EZAGUTU ETA BABESTEKO BESTELAKO TRESNAK.....  | 32 |
| 26. artikulua Lotura ekologikoaren plangintza.....  | 32 |
| 27. artikulua Igarobide ekologikoak eta iragazkortasuna.....  | 33 |
| 28. artikulua Iragazkortasun ekologikoaren neurriak.....  | 34 |
| 29. artikulua Lurzorua funtzio natural gisa.....  | 35 |
| 30. artikulua Karsta eta zuloak.....  | 36 |
| 31. artikulua Salbuespenezko kalte- edo arrisku-egoerak.....  | 36 |
| V. KAPITULUA. INTERESEKO HABITATAK KONTSERBATZEA.....   | 36 |
| 32. artikulua Euskadiren intereseko habitat naturalen zerrenda eta desagertzeko arriskuan dauden habitaten katalogoa..... | 36 |
| 33. artikulua Ondoreak.....   | 38 |
| 34. artikulua Habitatak kontserbatu eta leheneratzeko planak.....   | 38 |
| 35. artikulua Habitaten ezaugarriak.....  | 38 |
| IV. TITULUA NATURAGUNE BABESTUAK.....   | 39 |
| I. KAPITULUA. XEDAPEN KOMUNAK.....  | 39 |
| 36. artikulua Kontzeptua.....   | 39 |
| 37. artikulua Tipologia.....  | 40 |



|   |    |
|---|----|
| 38. artikulua Kategoriak gainjartzea .....  | 40 |
| 39. artikulua Mugaketa eta kartografia .....  | 41 |
| 40. artikulua Informazio geografikoa sartzea jabetza-erregistroan .....   | 42 |
| 41. artikulua Seinale-zortasuna .....   | 42 |
| 42. artikulua Onura publikoa .....  | 42 |
| 43. artikulua Tanteorako eta atzera eskuratzeko eskubideak .....  | 43 |
| 44. artikulua Babes-eremu periferikoak .....  | 43 |
| 45. artikulua Izendapena babestea .....   | 44 |
| 46. artikulua Erauzketa-jarduerak .....   | 44 |
| 47. artikulua Euskadiko Naturagune Babestuen Sarea .....  | 45 |
| <b>II. KAPITULUA. NATURAGUNE BABESTUAK</b> .....  | 45 |
| 48. artikulua Tipologia .....   | 45 |
| 49. artikulua Parke naturalak .....   | 46 |
| 50. artikulua Erreserba naturala .....  | 46 |
| 51. artikulua Monumentu naturala .....  | 47 |
| 52. artikulua Paisaia babestua .....  | 47 |
| 53. artikulua Deklarazio-prozedura .....  | 48 |
| 54. artikulua Naturagune babestuak kudeatzea .....  | 49 |
| 55. artikulua Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak .....   | 50 |
| 56. artikulua EKEGen indarraldia eta osagarritasuna .....   | 51 |
| 57. artikulua Parke naturalen patronatuak .....   | 51 |
| <b>III. KAPITULUA. NATURA 2000 SAREKO NATURAGUNEAK</b> .....  | 53 |
| 58. artikulua Euskadiko Natura 2000 Sarearen osaera .....   | 53 |
| 59. artikulua Izendatzeko prozedura .....   | 53 |
| 60. artikulua Natura 2000 sarearen kudeaketa .....  | 54 |
| 61. artikulua Euskadiko Natura 2000 Sarearen Gida Plana .....   | 55 |
| 62. artikulua Beste naturagune babestuekin bat egitea .....   | 56 |
| 63. artikulua Natura 2000 Sareko guneak deskatalogatzea .....   | 56 |
| 64. artikulua Zaintza eta jarraipena .....  | 57 |
| <b>IV. KAPITULUA. NAZIOARTEKO TRESNEN ARABERA BABESTUTAKO NATURAGUNEAK</b> .....  | 57 |
| 65. artikulua Biosferaren erreserbak .....  | 57 |
| 66. artikulua Geoparkeak .....  | 58 |
| 67. artikulua Nazioarteko garrantzizko hezeguneak .....   | 58 |
| 68. artikulua Nazioarteko arauk babestutako bestelako guneak .....  | 59 |
| <b>V. TITULUA. FAUNA ETA FLORAKO ESPEZIE BASATIEN BABESA</b> .....  | 60 |
| <b>I. KAPITULUA. XEDAPEN KOMUNAK</b> .....  | 60 |
| 69. artikulua Printzipio orokorrak .....  | 60 |
| <b>II. KAPITULUA. ESPEZIEEN TIPOLOGIA</b> .....   | 61 |
| 70. artikulua Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatiak .....   | 61 |
| 71. artikulua Espezie basati mehatxatuak .....  | 62 |
| 72. artikulua Espezie mehatxatuak babesteko neurriak .....  | 63 |
| 73. artikulua Espezie autoktono desagertuak .....   | 64 |
| 74. artikulua Espezie exotiko inbaditzaileak .....  | 65 |
| <b>III. KAPITULUA. DEBEKUAK ETA SALBUESPENAK</b> .....  | 67 |
| 75. artikulua Basafaunako espezieei dagozkien debeku orokorrak .....  | 67 |
| 76. artikulua Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien Euskal Zerrendan sartutako espezieei ezartzen zaizkien debekuak ..... | 67 |
| 77. artikulua Salbuespenak .....  | 68 |
| 78. artikulua Salbuespenak baimentzeko betekizunak eta prozedura .....  | 69 |
| <b>IV. KAPITULUA. BABESERAKO NEURRI GEHIGARRIAK</b> .....   | 71 |
| 79. artikulua Espezieen babesa ehiza eta arrantzari dagokionez .....  | 71 |
| 80. artikulua Basafauna oneratzeko zentroak eta germoplasma-bankuak .....   | 72 |



|   |           |
|---|-----------|
| 81. artikulua Basafaunako espezieak itxian haztea .....   | 72        |
| 82. artikulua Espezieak sartzea, birsartzea edo indartzea .....   | 73        |
| 83. artikulua Material genetikoaren bankuen erregistroa .....   | 74        |
| 84. artikulua Taxidermia .....  | 74        |
| 85. artikulua Aprobetxamenduak .....  | 75        |
| <b>VI. TITULUA. NATURA ONDAREA KONTSERBATZEKO SUSTAPEN-, EKONOMIA- ETA FINANTZA-NEURRIAK</b> .....  | <b>76</b> |
| 86. artikulua Natura-ondarea kontserbatzeko finantza-iturriak .....   | 76        |
| 87. artikulua Eragin sozioekonomikoko esparruak .....   | 76        |
| 88. artikulua Garapen sozioekonomikorako programak .....  | 77        |
| 89. artikulua Kalte-ordainen araubidea .....  | 77        |
| 90. artikulua Lurraldearen zaintza eta natura-ondarearen babesa sustatzea .....   | 78        |
| 91. artikulua Jabe pribatuekin akordioak natura-ondarea babesteko .....   | 78        |
| 92. artikulua Zerga-neurriak .....  | 79        |
| 93. artikulua Natura Ondarea Kontserbatzeko Euskal Funts Publikoa .....   | 80        |
| <b>VII. TITULUA. IKUSKARITZA ETA ZEHAPEN-ARAUBIDEA</b> .....  | <b>81</b> |
| <i>I. KAPITULUA. IKUSKARITZA</i> .....  | <i>81</i> |
| 94. artikulua Ikuskatzaileak .....  | 81        |
| 95. artikulua Funtzioak .....   | 81        |
| 96. artikulua Administrazioaren erantzukizuna .....   | 82        |
| 97. artikulua Arau-hausteen tipifikazioa .....  | 82        |
| 98. artikulua Zehapenen zenbatekoa .....  | 86        |
| 99. artikulua Arau-hauste eta zehapenen mailaketa eta zehaztapena .....   | 86        |
| 100. artikulua Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa .....   | 87        |
| 101. artikulua Leheneratzea eta kalte-ordaina .....   | 87        |
| 102. artikulua Eskumena .....   | 87        |
| 103. artikulua Zehapenen jakinarazpena. ....  | 87        |
| 104. artikulua Jurisdikzio penalarekin konkurrentzia .....  | 88        |
| 105. artikulua Hertsapen-isunak .....   | 88        |
| 106. artikulua Ehiza, arrantza eta mendietako arau-hausteak .....   | 89        |
| <b>XEDAPEN GEHIGARRIAK</b> .....  | <b>89</b> |
| <i>LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. BIOTOPO BABESTUEN ARAUBIDEA</i> .....  | <i>89</i> |
| <i>BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. APARTEKO ZUHAITZEN ARAUBIDEA</i> .....  | <i>89</i> |
| <i>HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. ARGITARATU GABEKO NATURAGUNE DEKLARATUAK EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN ARGITARATzea</i> ..... | <i>90</i> |
| <i>LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. OZTOPOEN ERAISPENA</i> .....   | <i>90</i> |
| <i>BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. ESPEZIE KATALOGATUEI APLIKATU AHAL ZAIZKIEN SALBUESPENAK</i> .....   | <i>90</i> |
| <i>SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. ESPEZIE JAKIN BATZUEN KUDEAKETA ETA USTIAPENA</i> .....  | <i>90</i> |
| <i>ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. EHIZARI BURUZKO MARTXOAREN 17KO 2/2011 LEGEA ALDATZEA</i> .....  | <i>91</i> |
| <i>ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. NATURA-INTERESEKO EREMUAK</i> .....   | <i>91</i> |
| <i>BEDERATZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. LEGEAREN EZARPENARI BURUZKO TXOSTENA</i> .....   | <i>91</i> |
| <b>XEDAPEN IRAGANKORRAK</b> .....   | <b>92</b> |
| <i>LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA. HIRIGUNEETAN BASO-MASAK AREAGOTZEA</i> .....  | <i>92</i> |
| <i>BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. NATURA KONTSERBATZEKO NAZIOARTEKO BATASUNAREN KATEGORIETARA EGOKITZEA</i> .....                            | <i>92</i> |
| <i>HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. IZAPIDETZE-PLANAK EGITEKO PROZEDURAK</i> .....   | <i>92</i> |
| <i>LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. ITXINAKO MENDIGUNEA BABESTEKO ARAUBIDEA</i> .....   | <i>92</i> |
| <i>BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. IGAROBIDE EKOLOGIKOEN EUSKAL KATALOGOA</i> .....  | <i>93</i> |
| <i>SEIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. IZAPIDETZEN ARI DIREN ZEHAPEN-PROZEDURAK</i> .....  | <i>93</i> |
| <i>ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. ESPEZIE MEHATXATUEN KATEGORIAK EGOKITZEA</i> .....  | <i>93</i> |
| <i>ZORTZIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. NATURA KONTSERBATZEKO AHOLKU KONTSEILUA - NATURZAINZTA</i> .....                                       | <i>93</i> |
| <b>XEDAPEN INDARGABETZAILEA</b> .....   | <b>93</b> |
| <b>AZKEN XEDAPENAK</b> .....  | <b>94</b> |



## ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 30eko 16/1994 Legea (Euskadiko natura kontserbatzeari buruzkoa) onartzea lehen pauso bat izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek eta botere publikoek alor honetan duten kezka gero eta handiagoari erantzuteko. Lege hau, bere garairako aitzindaria, urte askoan izan zen politika horren burua dagozkion hainbat eremutan: baliabide naturalen antolamendua, naturagune babestuak eta fauna zein flora, besteak beste.

Baliabide naturalak kontrolik gabe ekonomikoki ustiatzeagatik, fauna zein floraren espezieak desagertzeagatik eta kontserbazio-egoera onean zeuden naturaguneak degradatzeagatik beharrezkotzat jo zen adostea gure lurraldeko baliabide naturalak, funtsezko prozesu ekologikoak eta paisaiaren edertasuna kontserbatzeko sistema bat garapen integratuaren berme gisa, etorkizuneko belaunaldien ongizatea konprometitu ez zedin.

Lege honen helburua zen natura eta bere baliabideak kontserbatzeko araubide juridiko bat ezartzea hainbat degradazio-kausen aurrean. Araubide horrek, ordea, bateragarria izan behar zuen ekonomia eta gizartea garatzeko prozesu ordenatu batekin eta hainbat politika sektorial integratuta taxutu behar zen; horretarako, beharrezkotzat jo zen botere publikoek era efikazean jardutea, Euskal Autonomia Erkidegoan ongi kontserbatutako natura-ingurunea izateko.

Urteetan 4 aldiz aldatu zen:

- 2/1997 Legea, martxoaren 14koa, Euskadiko natura kontserbatzeko legea aldatzen duena. Lege honen bidez lehenengo xedapen gehigarria aldatu zen Gorbeia parke natural deklaratzeko eta hori arautzeko tresna juridikoen indarraldia ezar zedin.
- 1/2010 Legea, martxoaren 11koa, ekainaren 30eko 16/1994 Legea (Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteari buruzkoa) aldatzen duena. 2010eko Lege horren bidez, naturaguneak babesteko klausula bat ezarri zen balizko kalterik ez izateko ingurumen-interes ginetik interes ekonomikoak lehenetsiz gero. Aldaketa honen printzipio inspiratzaileek ingurumenaren babesean jarri zuten arreta, lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren ginetik. Hori abenduaren 13ko 42/2007 estatuko Legean ere ezarri zen, baina praktikan inkongruentzia handiak izaten jarraitzen zuen EAeko lurralde-plangintza egiterakoan.



- 2/2011 Legea, martxoaren 17koa, ehizari buruzkoa. Lege hori jarduera arautzeko zegoen beharrari erantzuteko egin zen, ehiza-baliabideak zein gainerako basafauna babestu behar baitziren; era berean, ehizaren errotze soziala babestu eta garatu behar zen eta ehizan aritzen zirenak inplikatu behar ziren natura-ingurunearen kudeaketa jasangarrian.
- 2/2013 Legea, urriaren 10ekoa, ekainaren 30eko 16/1994 Legea (Euskadiko natura kontserbatzeari buruzkoa) aldatzen duena. Lege honek naturaguneetako erauzketa-jarduerak arautu zituen eta, bestalde, Natura 2000 Sareari buruzko Batasunaren araudiaren babesean sortutako babes-figura berriei heldu zien. Azkenik, Gobernuak ahaldu zen legegintza-dekretu bat lantzeko. Dekretu horren bidez, testu arauemaile bakarrean berrantolatu ziren ekainaren 30eko 16/1994 Legearen (Euskadiko natura kontserbatzeari buruzkoa) edukia, martxoaren 11ko 1/2010 Legea (aurrekoa aldatzen duena) eta Lege hau.

Horrekin guztiarekin, 2014. urtean onartu zen Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Euskadiko natura kontserbatzeko Legea onartu zenetik 24 urte pasatu ondoren eta nahiz eta denboran bertan erreformak gauzatu, Legeak aplikatzeko arazoak planteatzen ditu, batez ere, natura-ondarea babestu eta kontserbatzeko arloan dagoen ingurumen-legegintzako corpus zabalarengatik, Europar Batasunetik sustatu dena eta estatuko oinarritzko araudira igaro dena.

Aurrez deskribatutako arau guztiak sustatu dituzten eta gaur egun indarrean jarraitzen duten printzipioak baztertu gabe, lege-aurreproiektu honen helburua da gaur egungo arazoei erantzutea, egindako lana errespetatuz beti eta natura-ondarearen eboluzio orekatua arriskuan jar dezakeena zuzenduz.

Beraz, Autonomia Estatutuak 11. artikuluan Euskadiri ematen dizkion eskumenez baliatuz eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean (autonomia-erkidegoko erakunde komunak eta bertako Lurralde Historikoetan foru-organoen arteko erlazioei buruzkoa) ezarritakoaren arabera, egokia da ekainaren 30eko 16/1994 Legea ordeztuko duen arau berri bat lantzea natura-ondarea kontserbatzeko esparruan, baita finkatzea ere, aldi honetan metatutako esperientziatik, kontserbazioaren esparruko erronka aldakorrei eta eskari sozialei aurre egin ahal izango dieten autonomia-erkidegoko ingurumen-politika berri baten oinarriak. Zazpi titulutan ezarritako 103. artikulua ditu.



I. titulua, xedapen orokorreari buruzkoa, Legearen xede eta Legearekin lotu nahi diren helburuen ingurukoa da. Xede eta helburu horiek administrazio publikoen jarduketa-jarraibideak eratzen dituzten jarduketa-printzipioetan oinarritzen dira. Halaber, natura-ondarea behar bezala kontserbatzeko herritarrek dituzten betebeharrak eta eskubideak jasotzen ditu. Berme juridiko handiagoa izateko, definizioei buruzko atal bat dago; hala, atal horrekin, argi utzi nahi da aipatutako termino bakoitzarekin esan nahi dena Lege honen ondorioetarako.

II. tituluak, eskumenen antolamendu-araubideari buruzkoak, administrazio publikoen eskumenak (Eusko Jaurlaritzarenak, foru-aldundienak edo tokikoenak) arautzen ditu eta administrazioen arteko lankidetzaren mekanismoak ezartzen ditu horiek guztiak behar bezala jardun dezaten. Lege honek arautzen dituen arloetako kontsultarako eta lankidetzarako kide anitzeko organoa deskribatzen du eta organo horren eginkizunak ezartzen ditu; aitzitik, organo horren eraketa etorkizunean dekretu bidez arautzeko uzten du.

III. tituluak, natura-ondarea ezagutu, planifikatu eta babesteko tresna orokorreari buruzkoak, gai estrategiko batzuk definitzen ditu datuak lotu eta tratatzeko, guneak eta jarraitu beharreko gidalerroak arautzeko. Natura-ondareari buruzko informazio guztia Euskadiko Naturaren Informazio Sistemari jaso behar dela adierazten du, sistema hori baita Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio guztietan natura-ondareari buruzko ezagutzaren ardatza. Halaber, puntu honetan, datozen zortzi urteetan jarraitu beharreko Euskal Estrategia markatzen da; horrela, hainbat administrazioen helburu, gidalerro eta ekintzen norabide finkoa ezarri da epe luzerako. Eta aurreproiektu honen ekarpen funtsezkoenetako bat da Eusko Jaurlaritzak natura-ondarearen alorrean Dekretuak eta Aginduak, esaterako Baliabide Naturalak Antolatzeko Planari buruzkoak, tramitatu eta onartzeko prozedura aldatzea. Abenduaren 22ko 8/2003 Legea (xedapen orokorrak egiteko prozedurarena) igortzen da.

IV. tituluak, naturaguneei buruzkoak, alde batetik, horien guztien xedapen komunak arautzen ditu eta, bestetik, guneen tipologiak; horien artean hauek desberdintzen ditu: naturagune babestuak, Natura 2000 Sareko naturagune babestuak eta nazioarteko tresnak aplikatzearen ondoriozko naturagune babestuak. Talde horietako bakoitzean zehatz-mehatz zehazten dira deskribatutako gune mota bakoitzak bete beharreko ezaugarriak, baita horien araubide partikularra eta kudeaketa-modua ere.



IV. tituluak, basafloa eta basafaunako espezieak babesteari buruzkoak, egoera basatian bizi den biodibertsitatea kontserba dadila bermatzen ahalegintzen da. Horretarako, lehentasuna ematen zaio haien habitatak zaintzeari eta araudi espezifikokoak ezartzen dira arrisku-egoeran dauden basaespezieak babesteko. Espezie horiek babes bereziko araubidean dauden basaespezieen zerrendan edo basafloa eta basafaunako espezieen euskal katalogoan sartzen dira.

VI. tituluak, natura-ondarearen babesa sustatzeko eta ekonomia zein finantzaziorako neurriei buruzkoak, hartu beharreko finantzazio-neurriak eta neurri fiskalak ezartzen ditu, berritasun gisa sartuz Natura Ondarea Kontserbatzeko Euskal Funtz Publikoa. Eta eragin sozioekonomikoko arloak deskribatzen ditu naturagune babestuak mantentzen laguntzeko eta eragiten zaien populazioen garapen sozioekonomikoa sustatzeko, garapen-programekin, kalte-ordainen araubidearekin, lursailen zaintzarekin edo jabetza pribatuekin hitzarmenak eginda.

VII. tituluak, ikuskaritza eta araubide zehatzaileari buruzkoak, arau-haustea eratzen duten gertaeren tipifikazioa jasotzen du eta oso larri, larri eta arin gisa sailkatzen ditu, natura-ondareari sortutako arriskueta oinarrituta. Arau-hauste mota bakoitzerako zigor-mailaketa finkatu da eta zigor-ezarpen bakoitzean arau-haustearen larritasunarekiko egokitasuna gorde behar dela adierazi da, legeak zehazten dituen irizpideak kontuan izanda. Halaber, diziplina-araubidearen baitan, aurreikusi da arau-hausteko gertaeren ondorioz aldatutako egoera leheneratu behar dela; era berean, Administrazio publikoari sortutako kalte-galerengatiko kalte-ordaina aurreikusi da. Neurri osagarri gisa, arau-hausteak egitea ez dadin sustatu, arau-hauste oso larriak edo larriak egin diren kasuetan ezarri da ez dela diru-laguntza publikorik lortuko. Era berean, ezarri da arau-hausleen erregistro bat sortuko dela eta bertan inskribatuko direla ebazpen irmo bat izan duten pertsona publiko eta pribatu arau-hausleak. Ildo horretan, aurreikusi da publikotasuna ematea batzordeak ezarritako zigorrei.





## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua Xedea

1. Lege honen xedea da Euskadiko natura-ondarea kontserbatzea, kudeatzea, era jasangarrian erabiltzea, leheneratzea eta hobetzea.
2. Natura-ondareztat joko da naturaren (biodibertsitate eta geodibertsitatearen iturria) ondasun, baliabide eta zerbitzuen multzoa; horiek guztiek balio nabaria baitute ingurumen, paisaia, zientzia edo kulturaren ikuspuntutik (autonomia-erkidegoaren lurraldeko lur, lurpe eta hegalkineko lur eta itsasoko eremuetan daude kokatuak) eta, horrez gain, eginkizun sozial garrantzitsua dute pertsonen garapen, osasun eta ongizatearekin lotura estua dutelako eta garapen sozial zein ekonomikoari ekarpena egiten dietelako.

### 2. artikulua Helburuak

Lege honen helburuak hauek dira:

- a) Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarrizko bizi-sistemek jarraipena izatea, ekosistema-zerbitzuak babestuz.
- b) Natura-ondarearen dibertsitate biologikoa eta geologikoa eta produkzio-ahalmena kontserbatu eta leheneratzea.
- c) Ekosistema naturalak eta ondare geologikoaren eta paisaiaren bariedade, berezitasun eta edertasuna kontserbazio-egoera onean gordetzea.
- d) Basaflora eta basafaunaren dibertsitate genetikoa eta populazioak eta horien guztien habitatak kontserbazio-egoera onean daudela bermatzea.
- e) Ziurtatzea natura-ondarearen ondasunak, baliabideak eta zerbitzuak era jasangarrian erabiltzen direla, bereziki espezie basatienak eta ekosistemenak, biodibertsitatea eta geodibertsitatearen galera garbia saihestuz.
- f) Sustatzea natura-ondarearen kontserbazioari aplikatutako ezagutza, prestakuntza eta ikerketa.
- g) Natura-ondareari buruzko datuak eta informazioa antolatu, trukatu eta zabaltzea.



### 3. artikulua Printzipioak

1. Euskal administrazio publikoek Lege hau aplikatzen dutenean printzipio hauetan oinarrituta jardungo dute: jasangarritasuna, prebentzioa, ardura edo zuhurtzia, kalteak konpontzea (sorburuan konpontzea lehenetsiko da), eta kutsatzen duenak ordaintzea.
2. Aurreko artikuluan ezarritako helburuak lortzeko, euskal administrazio publikoek (beren eskumenen eremuan eta lege honetan zein bere garapen-arauetan ezarritako esparruan) bermatuko dute natura-ondarea babesteko politikak (kontuan izan gabe ondarearen titulartasuna eta araubide juridikoa) printzipio hauen arabera egiten direla:
  - a) Lehenestea natura-ondarearen kontserbazioa lurralde-antolamendu, hirigintza-antolamendu, azpiegitura eta antolamendu kulturalarekiko.
  - b) Erregresiorik ez izatea naturagune babestuen kontserbazio-egoeran, horrek ez du eragozten naturagune horiek aldatzea edo desklasifikatzea zientifikoki egiaztatutako eboluzio naturalaren ondorioz.
  - c) Politika publiko sektorialetan integratzea natura-ondarea babestu, kontserbatu, kudeatu, era jasangarrian erabili, hobetu eta leheneratzeko baldintzak, bereziki eremu politiko, ekonomiko eta sozialean erabakiak hartzen direnean.
  - d) Zuhurtasun-printzipioa aplikatzea natura-ondareari eragin diezaioketen esku-hartzeetan.
  - e) Gizarteak era justu eta bidezkoan parte hartzea natura-ondaretik eta baliabide genetikoetatik eratorritako onuretan.
  - f) Aldaketa globalaren ondorioak prebenitzea, aldaketa hori arintzea eta horretara egokitzea, baita aldaketa horren ondore kaltegarrien aurka egitea ere.
  - g) Pertsona publiko eta pribatu guztiek erantzunkidetasuna izatea, natura-ondarearen erabiltzaile eta onuradunak diren aldetik, lege honen helburuak erdiesten.
  - h) Bermatzea herritarrak informatu eta kontzientziatuko direla natura-ondarea babesteak duen garrantziaren inguruan, baita parte hartuko dutela ere Lege



honetako helburuak lortzera bideratutako politika publikoen diseinuan eta gauzatzean.

- i) Naturaguneetako lurraldeetako herritarrek eta jabeek parte hartzea natura-ondarearen kontserbazioarekin koherenteak diren jardueretan eta horietatik eratortzen diren onuretan.
- j) Elkarlanean aritzea eta koordinatzea natura-ondarean eragina duten politika eta planak landu eta gauzatzen dituzten administrazio publiko eskudunak.

#### 4. artikulua Definizioak

Lege honen ondorioetarako hauek dira definizioak:

Habitat baten banaketa naturalaren eremu: habitat bat dagoen gune geografikoaren frakzioa. Gune geografikoan habitatak dauden edo ez dauden gune hori osatzen duten espezieen faktore geologiko, biogeografiko eta fisiologikoen zehazten dute, baita ekologikoen ere.

Naturagune babestuen ondoko eremu: naturagune babestuen alboan, jarraian, dagoen lurraldea baina naturagune babestuetatik kanpo. Espezie, habitat edo prozesu ekologikoetan klima-aldaketa globalaren inpaktuak murrizteko eremu horretan hartutako neurriek eragin dezakete naturagune babestuetan.

Eragin sozioekonomikoko eremu: naturagunean eta, halakorik balego, bere babesgune periferikoan dauden udal-mugardeen multzoa.

Interes naturalistikoko toki-eremu: lurralde- eta hirigintza-plangintzak ezartzen duen babesa duten toki-erakundeek deklaraturako lurraldeak.

Natura kontserbatzeko banku: ingurumen-kalteen zordunketa konpentsatzeko, natura-ondareari ondorio onuragarriak ekarriko dizkieten akzio-kredituak eros daitezkeen merkatua. Kredituak kaltea egin baino lehen sor daitezke eta konpentsatuko diren zordunketekiko aurretiazko loturarik gabe, eta biltegitatu egin daitezke denboran zehar. Kontzeptu hau kredituak sortzen diren eremu gisa edo kreditu horiek kudeatzen dituen erakunde gisa ulertuko da.

Germoplasma-banku: zentro hauen helburua da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko espezieen landare-haziak eta -propaguluak bildu, tratatu eta kontserbatzea, arreta berezia jarriz espezie arraro, endemiko eta/edo mehatxatuei.



**Biodibertsitate:** edozein iturritako organismo bizien aldakortasuna, lurreko eta itsasoko habitaten eta uretako bestelako habitaten alderdi biologikoa eta organismo horiek eratzen dituzten interrelazio biologikoak barne; habitatetako espezie bakoitzaren barneko, espezieen arteko eta alderdi biologikoaren dibertsitatea hartzen ditu bere baitan.

**Klima-aldaketa global:** Maila globalean gizaki batzuen ekintzak sortutako planetaren klima-aldaketa.

**Aldaketa global:** planeta-sistemaren funtzionamenduan ondore esanguratsuak dituzten eskala handiko transformazio guztiak. Ondoreak sor daitezke natura-ondarean eraginez, komunitateen eta ekosistemen portaera aldatuz eta/edo ondoreak sortuz sistema sozioekonomikoetan. Transformazio horien ezaugarria da multibariatuak eta ez-linealak izatea jatorrian eta inpaktuetan, atzeraelikadurarako mekanismoak izatea eta azterketa ez-sistemikoen bidez horiek aurreikustea zailtzen duten portaera sinergikoak izatea.

**Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Euskal Katalogo:** Euskadin desagertzeko arriskuan dauden habitaten administrazio-erregistro publikoa da.

**Igarobide Ekologikoen Euskal Katalogo:** Euskadiko igarobide ekologikoen administrazio-erregistro publikoa da eta Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioaren barnean dago.

**Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogo:** Euskadiko espezie mehatxatuen administrazio-erregistro publikoa da. Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioko Euskadiko Babes Araubide Berezian dauden Espezie basatien zerrendan kokatzen da erregistro hori.

**Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskal Katalogo:** Euskadiko espezie exotiko inbaditzaileen administrazio-erregistro publikoa da. Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioaren barnean dago aipatutako erregistroa.

**Emari ekologiko:** ur-ekosistemek baldintza naturaletan dituzten funtzionamendu, konposizio eta egitura mantentzeko gai den baliabide hidrikoaren emaria edo, hala badagokio, bolumena.

**Basafauna berreskuratzeko zentro:** foru-organo eskudunen mendeko zentroak dira. Horien helburua da dagokien ingurunean bizirauteko ezgaituta dauden basafaunako aleak zaindu, mantendu eta berreskuratzea, ondoren natura-ingurunera itzultzeko.

**Ekologia- eta lurralde-lotura:** espezie bateko populazio batek edo populazio-multzo batek lurralde zatitu batean beste populazio bateko indibiduoekin erlazionatzeko duten gaitasuna, baita paisaia zatitu batean antzeko ekosistemek konektatzeko gaitasuna izatea ere. Konexio hori igarobide ekologikoen bidez egiten da.



Ingurumeneko Aholku Batzorde: besteak beste, Lege honetan araututako arloetako kontsultarako eta lankidetzarako kide anitzeko organoa da, natura-ondarearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari atxikia.

Igarobide ekologiko: zabalera aldakorreko natura-ondarearen eta lurraldearen elementua. Basafauna eta basafloorarako garrantzi bereziko tokien koherentzia eta jarraitutasun espaziala ahalbidetzen du elementu horrek eta iragazkortasun handiagoa bermatzen du espazioen eta espezie-populazioen arteko lotura ekologikoa mantendu edo lortzeko helburuarekin, habitatak eta ekosistemak zaitu daitezela saihestuz eta espezieek modu askean zirkula dezatela erraztuz, kontuan izan gabe toki horiek naturagune babestu deklaratu diren ala ez Lege honetan aurreikusitako baldintzen arabera.

Lurraldea zaintzea: lurraldeko jabe eta erabiltzaileak natura-ondarearen kontserbazioan eta erabilera onean inplikatu nahi dituzten estrategia eta tresnen multzoa.

Natura 2000 Sarea kudeatzeko gidalerro: Natura 2000 Sarea osatzen duten guneak kudeatzeko arauak edo jarraibideak.

Oreka ekologiko: inguruneke faktore geologiko eta biologikoen interakzioaren emaitza. Faktore horiek ekosistema nolabaiteko egonkortasun dinamikoarekin mantentzen laguntzen dute.

Naturagune babestu: parke natural, erreserba natural, monumentu natural eta paisaia babestu kategorietan sailkatzen den naturagune mota.

Naturagune babestu: eremu geografikoa, lurrekkoa, trantsiziokoa, itsasertzekoa edo itsasokoa legez bereziki kudeatu eta administratua, kontserbazio-helburu espezifikoak lortzeko.

Natura 2000 Sareko gune: Batasunaren garrantzizko lekua (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) kategorietan sailkatzen den gune babestua.

Naturagune babestuak nazioarteko tresnak aplikatzearen ondorioz: kategoria hauetan sailkatzen diren naturagune babestu motak: Biosferaren erreserbak, RAMSAR hitzarmenaren nazioarteko garrantziko hezeguneak, UNESCOk deklaraturako geoparkeak, OSPAR hitzarmenak babestutako eremuak, Munduko Ondarearen Zerrendako naturaguneak eta Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

Espezie exotiko inbaditzaile: ekosistema edo habitat natural edo erdinatural batean sartu edo ezartzen den espeziea, eta aldaketa- eta mehatxu-agente bat da



jatorrizko dibertsitate biologikoarentzat, bere jarrera inbaditzailearengatik edo kutsadura genetikoaren arriskuarengatik.

Bertako espezie: bere banaketa naturalaren eremuaren barnean bizi den espeziea.

Desagertutako bertako espezie: iraganean bere banaketa naturaletik desagertutako espeziea.

Galzoriko espezie: landare- edo animalia-espezieak, galtzeko zorian dauden izaki biziak dituztenak.

Espezie basati mehatxatu: Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko espeziea.

Habitat baten kontserbazio-egoera on: banaketa naturalaren eremua egonkorra denean edo zabaltzen denean; habitata epe luzean mantentzeko behar diren egitura eta funtzio espezifikoak existitzen dira eta existitzen jarrai dezakete aurrez ikus daitekeen etorkizun batean; eta bertako espezieen kontserbazio-egoera ona da.

Espezie baten kontserbazio-egoera on: populazioen dinamikak adierazten duenean espezieak berebiziko garrantzia duela artean bere habitatetan, eta epe luzean ere izan dezakeela; berezko banaketa-area ez dela murrizten ari, eta ez dagoela aurreikus daitekeen etorkizunean murrizteko arriskurik; eta habitataren azalera nahikoa dela populazioak epe luzean atxikitzeko, eta pentsatzekoa dela etorkizunean ere nahikoa izango dela.

Interes Geologikoko Toki baten kontserbazio-egoera on: toki horren deklarazio-arrazoi diren balio zientifikoak, hezigarri/interpretaziozkoak edo turistiko/dibertimenduzkoak ukitu gabe mantentzen direnean denbora zehar, bere hauskortasuna edo urrakortasuna murrizteko neurriak daudenean, halakorik balego, eta bere muga naturalak ez direnean murrizten, eta ez dagoenean mehatxurik hori murrizteko etorkizunean, aurreikus daitekeen neurrian.

Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia: euskal administrazio publikoak Euskadiko natura-ondarea babestu, kontserbatu, era jasangarrian erabili, kudeatu, hobetu eta leheneratzeko alorrean orientatu eta koordinatzeko behar diren helburu, gidalerro eta ekintzak ezartzen dituen dokumentua, estatuko eta Europar Batasuneko plangintza estrategikoaren eduki lotesleak errespetatu eta txertatuz.

Natura Ondarea Kontserbatzeko Euskal Funtz Publiko: diru-sarrerara publikoen bilduma, Euskadiko naturaren kontserbazio-egoera ona hobetzera bideratua.

Geodibertsitate: elementu geologikoen barietatea, arroak, mineralak, fosilak, prozesu fisikoak, lurzoruak, erliebe-formak, formazioak eta unitate geologikoak eta Lurraren eboluzioaren emaitza eta erregistroa diren paisaiak barne.



Geoparke: aparteko elementu geologikoak dauden lurraldea, nazioartean eta zientzian garrantzi, berezitasun edo edertasun berezia duena. Elementu geologiko horiek historia ebolutibo geologikoaren eta horiek eratu zituzten prozesuen erakusgarriak dira eta duten balio arkeologiko, ekologiko edo kulturalarengatik nabarmentzen dira. Elementu horiek oinarri gisa hartuta, lurraldea garatzeko estrategia jasangarri bat ezartzen da hezkuntzan eta turismoan oinarrituta.

Batasunaren intereseko habitat: EAEn dagoen habitata, 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE zuzentarauko (habitat naturalak eta basafauna eta basafloak kontserbatzeari buruzkoa) I. eranskinean agertzen dena.

Eskualdearen intereseko habitat: Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioan dagoen habitata.

Lehentasunezko habitat: Europako lurraldean desagertzeko arriskuan dauden habitat motak. Habitat horiek kontserbatzea erkidegoarentzat ardura berezia da, kontuan izanik habitat horren banaketa naturalaren eremuaren proportzioak Europako lurraldean duen garrantzia.

RAMSAR hitzarmeneko nazioarteko garrantziko hezegune: padura-, zingira- edo zohikaztegi-eremuak, edo urez estalitako azalerak, naturalak edo artifizialak, iraunkorrak edo behin-behinekoak, ur geldikoak edo korrontedunak, gezak, gatzdunak edo gaziak, baita itsas uraren eremuak ere baldin eta itsasbeheran sakonera ez bada sei metrotik gorakoa. Horiek guztiek, EAEn egonda, Nazioarteko Garrantziko Hezeguneen Zerrendan sartuta egon behar dute, hau da, Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei buruzko Hitzarmenean aurreikusitako zerrendan, bereziki, Uretako Hegaztien Habitat gisa.

Azpiegitura berde: beste ingurumen-elementu batzuekin estrategikoki planifikatutako kalitate handiko naturagune eta erdinaturalen sarea, zerbitzu ekosistemikoak emateko eta landa- zein hiri-kokaguneen natura-ondarea babesteko diseinatua eta kudeatua.

Euskadiko Natura Ondarearen Inbentario: natura-ondareko elementu inbentariatuaren multzoa: Naturagune Babestuen Euskal Inbentarioa, Euskadiko Babes Araubide Berezia dauden Espezie basatien Zerrenda, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa, Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskal Katalogoa eta Igarobide Ekologikoen Euskal Katalogoa.

Naturagune Babestuen Euskal Inbentario: Euskadiko Naturagune Babestuen multzoa. Horietan kategorien eta tipologiaren arabera bereizita daude horien xedapen orokorrak eta deklarazio- edo izendapen-hitzarmenak, plangintza- eta kudeaketa-tresnak eta kartografia.



Euskadiko Babes Araubide Berezian dauden Espezie basatien Zerrenda: Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioko Euskadiko babes-araubide berezian dauden espezie basatien administrazio-erregistro publikoa.

Euskadiren intereseko habitat naturalen zerrenda: Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioko Euskadiren intereseko habitat naturalen administrazio-erregistro publikoa.

Interes Geologikoko Toki: ondare geologikoa osatzen duten eremu edo elementu higigarri eta higiezinak.

Egokitzapen-neurriak klima-aldaketa globalaren aurrean: gizartearen ahultasuna eta sistema naturalen sentikortasuna murriztera bideratutako ekimenak eta neurriak, klima-aldaketa globalaren benetako ondoreen edo espero diren ondoreen aurrean.

Arintze-neurriak klima-aldaketaren aurrean: berotegi-efektuko gasen isuriak mugatu eta murrizteko eta berotegi-efektuko gasak xurgatzeko gaitasuna areagotzeko eta horien hustulekuak hobetzeko aukera ematen duten politikak, teknologiak eta neurriak dira.

Natura-ondarea hobetzea: natura-ondarearen kontserbazio-egoera hobea lortzera bideratutako jarduketa, kontserbazio-egoera onera iritsi gabe.

Monumentu natural: babes bereziaren xede izatea merezi duten berezitasun, arrarotasun edo edertasun nabariko formazioek eratutako naturako gune edo elementua.

Paisaia babestu: dituen balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duen lurralde-eremua, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabera.

Parke natural: eremu zabal samarra eta gizakiaren ustiapen edo okupazioarengatik gutxi transformatua, ekosistemen edo habitaten adierazgarritasunagatik, bertako flora, fauna edo ondare geologiko bereziarengatik (bertako formazio geomorlogikoak edo paisaien edertasuna barne) balio ekologiko, estetiko, hezigarri eta zientifikoak dituenak eta bere kontserbazioak lehentasunezko arreta merezi duena.

Ondare geologiko: balio zientifiko, hezigarri/interpretaziozko edo turistiko/dibertimenduzkoa duten elementu natural geologikoen multzoa. Elementu horiek izan daitezke formazio eta egitura geologikoak, prozesu geologikoak, lursail-formak, mineralak, arroak, meteoritoak, fosilak, lurzoruak eta bestelako adierazpen geologikoak baldin eta alderdi hauek ezagutu, aztertu eta interpreta badaitezke: a) Lurraren jatorria eta eboluzioa, b) Lurra moldatu duten prozesuak,





c) iraganeko eta gaur egungo klimak eta paisaiak eta d) bizitzaren jatorria eta eboluzioa.

Natura-ondare: naturaren (biodibertsitate eta geodibertsitatearen iturria) ondasun, baliabide eta zerbitzuen multzoa; horiek guztiek balio nabaria baitute ingurumen, paisaia, zientzia edo kulturaren ikuspuntutik (autonomia-erkidegoaren lurraldeko lur, lurpe eta hegalkineko lur eta itsasoko eremuetan daude kokatuak) eta, horrez gain, eginkizun sozial garrantzitsua dute pertsonen garapen, osasun eta ongizatearekin lotura estua dutelako eta garapen sozial zein ekonomikoari ekarpena egiten dietelako.

Parke naturalen patronatu: parke natural baten organo kudeatzaileari atxikitako organo aholkulari, laguntzaile eta parte hartzailea.

Lotura eta lehengoratzeko ekologikoen plan: euskal lurraldeko azpiegitura berdea osatzen duten lurralde-elementuak identifikatu eta kontserbatzeko gidalerroak markatzen dituen dokumentua da, eta bere helburua da administrazio publikoek egingo duten lurralde- eta sektore-plangintzak aukera ematea eta ziurtatzea ekosistemek lotura ekologikoa eta funtzionaltasuna dutela, klima-aldaketa arinduko dela eta horretarako egokitzapena egingo dela, eremu estrategikoak ez direla zatituko loturarako eta ekosistema narriatuak leheneratuko direla.

Espezie exotiko inbaditzaileak deuseztatzeko plan: Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskal Katalogoko espezie bat deuseztatzeko gidalerro, arau eta neurriak ezartzen dituen dokumentua. Neurri horiek espezie exotiko inbaditzaile horiek okupatu duten nitxoaren funtzionaltasun ekologikoa berreskuratzeko izango dira.

Espeziea kudeatzeko plan: Euskadiko Babes Araubide Berezian dauden Espezie basatien Zerrendako espezie baten kontserbazio-egoera ona lortzeko gidalerro, arau eta neurriak ezartzen dituen dokumentua.

Natura 2000 Sarearen gida-plan: Natura 2000 Sarea osatzen duten guneak kudeatzeko oinarritzko irizpideak eta adierazleak ezartzen dituen dokumentua.

Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidaria (EKEG) edo Kudeaketa Plan (KP): dokumentu honek, erreferentziako Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren garapenean, kontserbazio-helburua lortzeko, Parke Natural bat horretarako deklaratzeko baita, gidalerro, arau eta neurriak ezartzen ditu, baita segimendu- eta ebaluazio-programak ere.

Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Kontserbazio eta Lehengoratzeko Plan: dokumentu honek diagnostiko bat, gidalerroak, neurriak eta arauak ezartzen ditu eta Desagertzeko Arriskuan dagoen habitat baterako mehatxuak identifikatzen ditu.



Bestelako habitatak erabiltzeko plan: dokumentu honek diagnostiko bat, gidalerroak, neurriak eta arauak ezartzen ditu eta desagertzeko arriskuan ez dagoen habitat baterako mehatxuak identifikatzen ditu.

Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan (BNAP): eremu espazial jakin bateko natura-ondarea integratzen duten elementu batzuen plangintza-tresna espezifiko da, eta lurraldearekiko mugak, tipifikazioa, sareko integrazioa eta zehaztapena ezartzen dira.

Garapen Sozioekonomikoaren Programa: dokumentu hau naturagune babestu baten eta bere babesgune periferikoaren lurralde-eremuan integratuta dauden udalerrien garapen sozioekonomikoa sustatzeko da.

Euskadiko Natura Ezagutzeko Sare: erakunde eta pertsonen elkarte bat da, eta datuak zein informazioa biltzen eta erabiltzen laguntzen du elkarte honek, baita natura kontserbatzeko eta onura publikorako eta dokumentu estrategikoetan eta aplikazio-araudian jasotako nahitaezko txostenak egiteko erabil daitekeen ezagutza sortzen ere.

Natura 2000 Sare: biodibertsitatea kontserbatzeko guneen Europako sare ekologikoa da eta bertan hauek sartzen dira: Habitaten zuzentarauaren arabera ezarritako Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta hegaztien zuzentarauaren arabera izendatutako Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE). Sare honen helburua da espezieen eta habitat moten biziraupena ziurtatzea European epe luzerako, biodibertsitatearen galera-galtzeari lagunduz.

Espezie basatien Material Genetikoaren Bankuen Erregistro: Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen erregistro publikoa da. Bertan jasotzen da EAeko basafauna eta basaflorearen bilduma zientifiko eta materialei buruzko informazioa.

Biosfera-erreserba: ondarea eta baliabide naturalak era integratuan, partizipatiboan eta jasangarrian kudeatzeari buruzko UNESCOren MaB Programaren baitan, horrelakotzat deklaraturako lurraldea.

Erreserba natural: neurrizko hedapena edo murriztua duten naturaguneak dira. Horrelako naturaguneak sortzeko helburua da ekosistemak, komunitateak edo elementu biologikoak babestea, baita interes geologikoko tokiak ere, (horiek guztiek duten arrarotasun, hauskortasun, garrantzi edo berezitasunarengatik balorazio berezia merezi baitute), baso zaharrak edo baso-erreserbak edo antzekoak barne.

Natura-ondarean egindako kaltea leheneratu, konpondu edo desartifizializatzea: natura-ondareak kontserbazio-egoera on batera eboluzionatzeko jarduketak garatzea, nahiz eta ingurumen-balio garrantzitsuak duten, hainbat era eta mailatako



aldaketa antropiko itzulgarriak pairatu dituzten guneean. Aplikazio-lehentasunari dagokionez, hierarkikoki ordenatuta, egoera hauek aurreikusten dira: 1. Gunea jatorrizko egoerara edo ingurunea aurreikusitako aldaketa natural batera egokitzeko egoerara leheneratzea irizpide zientifiko bidez; 2. Jatorrizko egoera naturala lortzen ez duten baina etorkizunean jatorrizko egoera natural horretara iristea eragozten ez duten, eta leheneratze-jarduketa baino lehenago zegoena baino ingurumen-egoera baliotsuago batera bideratzen duten balio natural handiagoko beste egoera batzuetara leheneratzea.

Euskadiko Naturaren Informazio Sistema: Euskadiko naturari buruz eskura dagoen ezagutza zientifiko eta tekniko integratzen duen Eusko Jaurlaritzak kudeatutako tresna.

Balio natural handiko sistema: lotura ekologikoaren plana ezartzeko interesa duten sektore ekonomikoek aplikatutako jardunbide egokien ondorioz sortutako naturaguneak.

Lurzoru: Natura-ondarearen zati den elementu naturala, mineral eta/edo osagai organikoen geruzez edo horizonteez osatua, lodiera aldakorreak eta alboko etenik gabea, harri amaz bestelakoa dena morfologia, ezaugarri fisiko, kimiko eta mineralogikoen eta ezaugarri biologikoen aldetik. Lurzorua bereziki kontuan hartzen da karbonoa atxikitze duen gaitasunarengatik.

Babesgune periferikoak: gunea babestu baten kanpoko eremua da eta ekologia- edo paisaia-inpaktuak saihestera bideratua dago. Helburu hori lortzeko araudi espezifiko bat ezar daiteke eremu horretan.

## 5. artikulua Eginkizun soziala

Lege honetako helburuak lortzera bideratutako jarduerak onura publiko edo interes sozialekotzat deklaratu daitezke, ondorio guztietarako eta bereziki desjabetze-jardueretarako, eraginen bat izan dezaketen ondasun edo eskubideei dagokienez.

## 6. artikulua Herritarren betebeharrak eta eskubideak

1. Pertsona guztiek dute natura-ondarea kontserbatzeko, hori era arduratsuan erabiltzeko, ondare hori narria dadila saihesteko eta sor diezaieketen kaltea



- aurreikusi eta konpontzeko betebeharra. Halaber, eskubidea dute natura-ondareaz gozatzeko, berdintasun-baldintzetan.
2. Bereziki, ingurumen-alorrean informazioa eskuratu eta herritarrek parte hartzeari buruzko araudiaren esparruan, eskubide hauek aitortzen dira:
    - a) Agintari publikoen edo horien izenean bestelako subjektuen eskura dagoen natura-ondareari buruzko informaziorako sarbidea izatea.
    - b) Erabaki-hartzeetan parte hartzea, planak, programak eta xedapen orokorrak egitea barne, baldin eta Lege honen xede diren alorretan zuzenean edo zeharka eragiten badute.
  3. Publikoa da euskal administrazio publikoetatik Lege honetako eta Legea garatzen duten gainerako xedapenak bete daitezela eskatzeko ekintza.

## 7. artikulua Politika sektorialetan integratzea

Natura-ondarea babesteko baldintzak politika publiko sektorialetan, bereziki, tresna hauen bidez integratzen dira:

- a) Politika horiek diseinatzean kontuan izatea natura-ondarea babesteko eskakizunak, arreta jarriz naturagune babestuei, intereseko habitatei, basafauna eta basafiorako espezieei eta horien habitatei, geodibertsitateari eta lurraldearen iragazkortasun eta lotura ekologikoari.
- b) Halakorik bada, xedapen orokorren proiektuei buruzko memorietan natura-ondarean izan dezaketen inpaktuari buruzko atal bat txertatzea.
- c) Halakorik bada, natura-ondarean planak, programak eta proiektuen inpaktuak ebaluatzea.
- d) Natura-ondarea sustatzeko neurriak diseinatzea dena delako eskumen-eremuan.

## 8. artikulua Natura-ondarea eta klima-aldaketa

1. Babeste-ondorioetarako eta, halakorik bada, klima-aldaketa arintzeko eta natura-ondarea klima-aldaketara egokitzeko, euskal administrazio publikoek,



dagozkien eskumen-eremuetan, besteak beste, helburu hauek dituzten jarduketak gauzatuko dituzte:

- a) Ekosistemen heterogeneotasuna ziurtatzea, lurralde-lotura areagotzea eta dauden presioak murriztea.
- b) Baso-masen garapena sustatzea bertakoak diren eta klima-aldakortasunarekiko iraunkorrak diren espezieekin, karbono hustulekuak areagotuz, baita hiriguneetan ere. Ondorio horietarako masa horien hazkunde handiagoa behar duten eremuak identifikatzen dira berotegi-efektuko gas-isuriaren erreferentzien bidez, hogeita bost urteko denbora-tarte batean lortu beharreko behin-behineko mugarriak ezarriz.
- c) Muturreko fenomeno naturaletatik eratorritako ondoreak saihestea edo gutxitzea lurzoruan eta landare-estalkian, halakorik balego, ondore horiek baino lehenagoko baldintzetara leheneratuz. Gaur egun dauden erregistro historikoetan oinarrituta, administrazioek prebentzio-neurriak ezartzen dituzte, fenomeno horietara egokitzeko gaitasuna areagotzeko, bereziki landare-estalkiaren, lurzorua eta gune babestuen babesa areagotuz.
- d) Naturagune babestuen alboko guneetan sustatzea horietan klima-aldaketaren inpaktuak murrizteko balio duten neurriak, bereziki basoko landare-espezieak babestuta, baldin eta polinizazioa bezalako prozesu ekologikoak bultzatzen badituzte edo faunako espezieen habiagintza eta ugalketa sustatzen badute, bereziki hegazti basatiena.
- e) Eredu prediktiboak izatea, espezieek eta komunitateek aldaketekiko dituzten erantzunetan eta klimaren eskualde-ereduen proiektioetan oinarrituak.
- f) Klima-aldaketaren inpaktuaren aurrean, naturan oinarritutako irtenbide gisa itsas eremuaren eta kontinentalaren arteko trantsizio-eremuetako ekosistemen azalera babestu, leheneratu eta zabaltzea.
- g) Klima-aldaketaren aurrean naturaguneen erresilientzia areagotzea, eremu horiek landa-eremuetako eta hiri-ingurueta erresilientzia hobetzeko.
- h) Lurzoruen CO<sub>2</sub>-a atxikitze gaitasuna areagotzea
- i) Ahal den heinean, hiri-eremuetan balio naturala duten eremuetan integratzea, artifizialtasunik ezak eta desartifizializazioak duten garrantzia azpimarratuz naturan oinarritutako irtenbideak indartzeko funtsezko elementu gisa.



- j) Kliman espero diren aldaketetatik natura-ondarea babesteko behar berriak aurreratzea.
2. Aurreko jarduketak administrazioen arteko lankidetzaren xede izan daitezke Lege honen 10. artikuluan ezarritako tresnen bidez.

## II. TITULUA ESKUMEN- ETA ANTOLAMENDU-ARAUBIDEA

### 9. artikulua Administrazio publikoen eskumenak

1. Euskadiko instituzio komunei dagokie hau guztia:
  - a) Natura-ondarearen alorrean, Estatuaren oinarritzko legeriaren araudia garatzea, Euskadirako Autonomia Estatutuan aurreikusitakoarekin bat.
  - b) Naturagune babestuen plangintza- eta antolamendu-tresnak onartzea.
  - c) Lege honetan aurreikusitako kasuetan, naturagune babestuak izendatzea eta deklaratzeko.
2. Lurralde Historikoetako foru-organoei dagozkie azaroaren 25eko 27/1983 Legean (autonomia-erkidegoko eta bertako Lurralde Historikoetako foru-organoei dagokien arau-erakundearen buruzkoa) jasotako eskumenak, baita Lege honek eta natura-ondarearen alorreko gainerako araudi autonomikoak esleitutakoak ere.
3. Toki-erakundeek, beren eskumenen alorrean eta natura-ondareari buruzko legerian ezarritako esparruan, natura-ondarea kontserbatzeko arau- edo administrazio-neurri gehigarriak ezarri ahal izango dituzte.

### 10. artikulua Administrazioen arteko lankidetzarako mekanismoak

1. Lege honetan jasotako betebeharren kalterik gabe, euskal administrazio publikoak natura-ondarea kontserbatzeko alorrean elkarlanean eta lankidetzan arituko dira, beren helburuak betetzen direla bermatzeko era guztietako jarduketak koordinatuz.
2. Foru-organoei Lurralde Historiko bakoitzaren eremu espaziala gainditzen duten elementuei eragin diezaiaketen natura-ondarearen alorreko eskumenak gauza



ditzakete lankidetzaren bidez, esaterako, batzorde mistoak, organo paritarioak edo lankidetzaren hitzarmenak.

3. Euskadiko administrazio orokorrak beste autonomia-erkidego batzuekin eta mugaz gaindiko erakundeekin sinatu ahal izango ditu natura-ondarea babesteko behar diren hitzarmenak, betiere ondare hori era naturalean banatzen bada edo bere ziklo biologikoa osatzen badu lurralde batean baino gehiagotan.
4. Euskadiko administrazio orokorrak natura-ondarearen alorrean sustatuko du udalekin izan behar den koordinazioa, kontuan izanik eskualde-lurraldean duten jarduketak.

### 11. artikulua Ingurumeneko Aholku Batzordea

1. Ingurumeneko Aholku Batzordea da, besteak beste, Lege honetan araututako arloetako kontsultarako eta lankidetzarako kide anitzeko organoa, natura-ondarearen eremuan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari atxikia.
2. Natura-ondarearen alorrean, Batzordeak eginkizun hauek izango ditu, gutxienez:
  - a) Batzordearen eskumeneko alorrei buruzko txostenak eta irizpenak egitea eta proposamenak egitea, bere ekimenez edo Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek eskatuta.
  - b) Naturagune babestu berriak deklaratu eta izendatzeko proiektuen txostenak egitea, Lege honetako preskripzioen arabera.
  - c) Naturagune babestuak planifikatu eta kudeatzeko tresnen txostenak egitea tresna horiek lantzean edo aldatzean, Lege honetako preskripzioen arabera.
  - d) Natura-ondarearen alorrean Eusko Jaurlaritzaren ustez garrantzi nabarmena duten legeen aurreproiektuen eta xedapen orokorren proiektuen txostenak egitea.
  - e) Natura-ondarea hobeto babestea eta kudeatzea ekarriko duten helburu eta jarduketak proposatzea, bereziki klima-aldaketaren aurrean, bai epe ertainean bai epe luzean.
  - f) Lurraldea kudeatzeko ardura duten Administrazioen arteko koordinazioa sustatzea eta horretan laguntzea natura-ondarea gehiago babesteko.
  - g) Hezkuntza sustatzea natura-ondarea kontserbatzeko, ikerketa zientifikorako, natura-ondarea zabaltzeko eta hedatzeko.



- h) Legearen edo araudiaren arabera esleitzen zaizkion gainerako funtzioak gauzatzea.
3. Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren bidez Aholku Batzordearen araudia onartzen da, bertan hau guztia arautuko da: kideak esleitzeko prozedura, esleitutako funtzioak, Batzordearen osaera eta bere antolamendu eta barne-funtzionamenduari buruzko gainerako gaiak.

### III. TITULUA NATURA-ONDAREA EZAGUTU, PLANIFIKATU ETA BABESTEKO TRESNA OROKORRAK

#### *I. kapitulua. Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioa*

#### **12. artikulua Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioa**

1. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak Euskadiko natura-ondarearen inbentario bat landu eta eguneratuta mantenduko du.
2. Inbentarioaren edukia, egitura eta eguneratze-araubidea araudiaren arabera zehaztuko dira, eta gutxienez honi guztiari buruzko informazioa izango du:
  - a) Naturagune Babestuen Euskal Inbentarioa eta bertan jaso beharko dira, kategoria eta tipologiaren arabera bereizita, naturagune babestu guztien deklarazio edo izendapena gauzatzeko xedapen orokorrak eta hitzarmenak, baita kasu bakoitzean onartutako plangintza- eta kudeaketa-tresnak ere eta eremu bakoitzari dagokion kartografia.
  - b) Euskadiko Babes Araubide Berezian dauden Espezie basatien zerrenda, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa barne.
  - c) Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskal Katalogoa.
  - d) Igarobide Ekologikoen Euskal Katalogoa.
3. Naturagune Babestuen Euskal Inbentarioak nahitaez izan beharko du, txertatutako eremu bakoitzaren erreferentzia gisa, Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren arabera dagokion kategoria baliokidea.
4. Era berean, Lurralde Historikoen Naturagune Babestuen Foru Inbentario bat sor dezakete; bertan, dagozkien gai guztiak sar ditzakete.





- a) Euskadiko Natura Ondarearen Inbentarioko datuak ofizioz sartzen dira, publikoak dira eta herritarrek eskuratzeko modukoak izan behar dute, baita baliabide elektronikoen eta telematikoen bidez ere.
5. Inbentarioan agertzen diren datu jakin batzuk publiko izatetik salbuetsi daitezke ingurumena babesteko arrazoiengatik, bereziki espezie mehatxatuen kokapenari edo ugalketa-tokiei buruzko datuak.

### 13. artikulua Euskadiko Naturaren Informazio Sistema

1. Euskadiko Naturaren Informazio Sistema sortuko da arlo honetan eskura dagoen ezagutza zientifiko eta tekniko integratzeko sistema gisa, eskumen publikoak era egokian garatzeko plangintza, kudeaketa, segimendu eta ebaluaziorako prozesuetan.
2. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari dagokio Euskadiko Naturaren Informazio Sistema garatu, antolatu, kudeatu eta ebaluatzea.
3. Araudiaren arabera garatuko dira sistemaren informazioa normalizatzen duten arauak eta irizpideak eta sistemaren erabilera partekatua eta berrerabilera bermatzen dutenak, baita sistemaren edukia, egitura eta eguneratze-araubidea ere, eta administrazioen artean informazioa transmititzeko betekizun eta baldintzak.

### 14. artikulua Euskadiko Naturaren Ezagutzeko Sarea

1. Euskadiko Natura Ezagutzeko Sarea erakunde eta pertsonen elkarte bat da, eta datuak zein informazioa biltzen eta erabiltzen lagunduko du elkarte honek, baita natura kontserbatzeko eta onura publikorako eta dokumentu estrategikoetan eta aplikazio-araudian jasotako nahitaezko txostenak egiteko erabil daitekeen ezagutza sortzen ere.
2. Sareko kideak, besteak beste, hauek guztiak izan daitezke: naturaren kontserbazioan inplikaturik dauden administrazio publikoak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, enpresak, elkarte sozialak eta pertsonak, betiere Euskadiko Naturaren Informazio Sistema hedatu eta hobetzera konprometitzen badira.



## 15. artikulua Euskadiko Natura Ondarearen Egoerari buruzko Inbentarioa

Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, Foru Aldundien lankidetzarekin, Euskadiko natura-ondareari dagokionez bi urtez behin koiuntura-txosten bat egingo du eta, lau urtez behin, txosten osatu bat, alor honetako politikek lortutako emaitzen ebaluazioa txertatuz eta hori oinarria izango da Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia lantzeko.

### *II. kapitulua. Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia*

#### 16. artikulua Xedea eta edukia

1. Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategiak euskal administrazio publikoak Euskadiko natura-ondarea babestu, kontserbatu, era jasangarrian erabili, kudeatu, hobetu eta leheneratzeko alorrean orientatu eta koordinatzeko behar diren helburu, gidalerro eta ekintzak ezarriko ditu, estatuko eta Europar Batasuneko plangintza estrategikoaren eduki lotesleak errespetatu eta txertatuz.
2. Estrategiak, gutxienez, alderdi hauek jasoko ditu:
  - a) Natura-ondarearen egoera eta joeren inguruko diagnostiko bat, pairatzen dituen mehatxu eta arriskuak identifikatuta, bereziki klima-aldaketarenak, era berean, natura-ondarean eragina duten politika publikoen ebaluazio bat ere izango du.
  - b) Indarraldian lortu behar diren helburu estrategiko eta operatiboak.
  - c) Politika publikoen gidalerro orokor orientatzaileak.
  - d) Helburuak lortzeko garatu beharreko neurriak eta ekintzak.
  - e) Adierazleen sistema bat. Arrakasta-irizpideak izango ditu sistema horrek eta indarraldian zehar aldian-aldian Estrategiaren eraginkortasuna ebaluatu ahal izango da.
  - f) Estrategia gauzatzeko kostuei buruzko memoria ekonomikoa eta estrategia aplikatzeko aurreikusitako tresna finantzarioak.



## 17. artikulua Lanketa

1. Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak egingo du Foru Aldundien lankidetzarekin.
2. Sail honi dagokio Estrategia lantzea eta hasieran onartzea. Estrategiaren baitan hauek guztiak egin behar dira:
  - a) Informazioa jendaurrean jarri.
  - b) Kontsulta egin komunitate zientifikoari eta agente ekonomiko zein sozial nagusiei.
  - c) Entzunaldia egin estrategiak eragingo dien administrazio publiko eta Lege honetako helburuak lortu nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei.
  - d) Ingurumeneko Aholku Batzordeak txostena egin beharko du.
3. Aurreko tramiteak egin ondoren (aldi berean susta daitezke), sailak Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia Gobernu Kontseiluari igorriko dio behin betiko onar dezan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin.

## 18. artikulua Indarraldia eta irismena

1. Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategia zortzi urtean izango da indarrean.
2. Euskal administrazio publikoek Estrategia kontuan izan beharko dute natura-ondarearen babesari, zuzenean edo zeharka, eragin diezaioketen planak, programak edo ekintzak garatzen dituztenean. Estrategiaren helburuak eta ekintzak integratu egin behar dira autonomia-erkidegoaren administrazio orokorraren sailen eta horiei atxikitako erakundeen eskumenekoak diren politika sektorialen diseinuan.

### *III. kapitulua. Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana*



## 19. artikulua Kontzeptua

1. Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak (BNAP) eremu espazial jakin bateko natura-ondarea integratzen duten elementu batzuen plangintza-tresna espezifikoa dira, eta lurraldearekiko mugak, tipifikazioa, sareko integrazioa eta zehaztapena ezarriko dituzte.
2. Plangintza honen tresnek, izena kontuan izan gabe, Lege honetan ezarritako helburuak eta edukiak izango dituzte.

## 20. artikulua Edukia eta lurralde-eremua

1. Baliabide Naturalak Antolatzeko Planek edo antzekoek, gutxienez, zehaztapen hauek izango dituzte:
  - a) Antolamenduaren xede den lurralde-eremuaren mugak eta bertako ezaugarri fisiko, geologiko, biologiko eta sozioekonomikoen deskribapena eta interpretazioa.
  - b) Idatzi eta definitu egingo da dena delako lurralde-eremua integratzen duten natura-ondare, biodibertsitate eta geodibertsitatearen, ekosistemen eta pasaiaren kontserbazio-egoera, kontserbazio-egoera ebaluatuz, arriskuak eta mehatxuak identifikatuz eta bertako diagnostiko bat eta etorkizuneko eboluzioari buruzko aurreikuspen bat formulatuz.
  - c) Kontserbazio-helburuak ezarriko dira.
  - d) Irizpideak zehaztuko dira planaren aplikazio-eremuko baliabide naturalak, bereziki, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen osagaiak kontserbatu, babestu, leheneratu, hobetu eta era jasangarria erabiltzeko, eta ingurunearekiko lotura ekologikoa mantentzeko eta leheneratzeko.
  - e) Klima-aldaketaren balizko ondoreei buruzko aurreikuspenak egingo dira, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko neurriak ezarriz, hau da, hala epe ertainean nola epe luzean eragina izango duten neurriak ezarriz.
  - f) Erabilera eta jarduerak direla eta, babestu beharreko natura-ondareko eta lurralde-zonifikazioko gune, habitat, espezie eta gainerako



elementuen kontserbazio-helburuen arabera ezarri behar diren muga orokorrak eta espezifikoak ezarriko dira.

- g) Hala badagokio, Lege honetan ezarritako babes-araubideetako bat aplikatuko da, kasu bakoitzean lurralde-mugak adieraziz.
  - h) Erreferentzia-irizpide orientatzaileak ezarriko dira jarduera ekonomiko eta sozialen, publikoak eta pribatuak, hainbat politika sektorial eta ordenatzaileak formulatzean eta gauzatzean, baldin eta horiek planaren aplikazio-eremuan eragiten badute, natura-ondarea kontserbatzeko helburuekin bateragarriak izan daitezten.
  - i) Neurriak identifikatuko dira antolamenduaren xede den lurralde-eremuko lotura ekologikoa bermatzeko.
  - j) Ingurumen-ebaluazioa egin behar zaien plan, programa eta proiektuak zehaztuko dira osoki edo zati batean Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren antolamendu-eremuan egoteagatik.
  - k) Memoria ekonomikoa egingo da Estrategia aplikatzeko aurreikusitako kostu eta tresna finantzarioei buruz.
  - l) Antolamenduaren xede den lurralde-eremurako behar diren antolamendu-eta informazio-planoak egingo dira, eskala egokian, autonomia-erkidegoko kartografia ofizialaren arabera.
  - m) Planaren eraginkortasunaren aldizkako segimendu- eta ebaluazio-plana.
2. Baliabide Naturalak Antolatzeko Planen lurralde-eremua balio naturalen irizpide fisiko, biologiko, geologiko, sozioekonomiko eta homogeneotasun batekin zehaztuko da; horrela, bertan jasota geldituko dira lurralde-eremuaren berezitasun esanguratsuak.

## 21. artikulua Indarraldia

1. Baliabide Naturalak Antolatzeko Planek onartze-arauan berariaz zehazten den indarraldia izango dute.
2. Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak berrikusi, aldatu eta/edo eguneratu egingo dira, plana onartzeko jarraitutako prozeduraren bidez, plana idaztean nagusitu diren irizpide eta helburuak aldatzen direnean edo antolamenduaren xede diren lurralde-eremuetako baldintza ekologiko, sozial edo naturalak



transformatzen direnean, baita segimendu eta ebaluazioko emaitzek horrela aholkatzen dutenean ere. L8/2003 txertatu

## 22. artikulua Irismena

1. Baliabide Naturalak Antolatzeke Planaren ondoreek plana onartzeko arauak ezartzen duten irismena izango dute.
2. Baliabide Naturalak Antolatzeke Planak nahitaezkoak eta betearazleak dira Lege honetan arautzen diren alorretan; hala, planen xedapenek muga bat ezarriko dute lurralde, hirigintza, baliabide naturalen antolamendu edo antolamendu fisikoaren bestelako edozein tresnatarako eta horien guztien antolamenduek ezingo dituzte aldatu aipatutako xedapenak.
  - a) Lehendik dauden eta Baliabide Naturalak Antolatzeke Planeko tresnekin kontraesanean dauden lurralde, hirigintza, baliabide naturalen antolamendu edo antolamendu fisikoaren tresnak planekoetara egokitu behar dira, urte bateko gehieneko epean tresna horiek behin betiko onartzen direnetik. Egokitzapen hori egiten ez den bitartean, Baliabide Naturalak Antolatzeke Planeko zehaztapenak, kasu guztietan, tresna horiekiko gailenduz aplikatuko dira.
3. Halaber, Baliabide Naturalak Antolatzeke Planak erabakigarriak dira beste edozein jarduketa, plan edo programa sektorialekiko. Horiek lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiengatik soilik egon daitezke kontraesanean Baliabide Naturalak Antolatzeke Planetako edukiarekin edo eduki hori jaso gabe, eta kasu horretan erabakia arrazoitu beharko da eta jendaurrean argitaratu beharko da. Erabaki hori Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiaren Gobernu Organoak hartuko du dena delako jarduketa, plan edo programa sektoriala onartzeko duen eskumenaren arabera, eta argitaratu egin beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Lurralde Historikokoan, hurrenez hurren.

## 23. artikulua Lantzeko eta onartzeko prozedura

1. Baliabide Naturalak Antolatzeke Planak abenduaren 22ko 8/2003 Legean (xedapen orokorrak lantzeko prozedurari buruzkoa) ezarritako prozedura jarraituz landu eta onartzen dira.



2. Aurreko prozedura sustatzeko ekimen publiko edo pribatuak sail horren bidez bideratu behar dira, eta gutxienez aipatzen duen eremu geografikoa identifikatu beharko da eta, proposamengilearen ustez, Plana lantzea justifikatzen duten kausen memoria esplikatzaile bat izan beharko du.
3. Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana onartzearen ondorioz lurralde-antolamenduaren gidalerroak aldatzen badira, bi tresnen bateragarritasuna ziurtatzeko, gidalerroak planean ezarritakora egokitu beharko dira, maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak (Euskadiko lurralde-antolamenduari buruzkoa) aurreikusitako prozedurarekin bat.

#### 24. artikulua Kautela-babesa

1. Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan baten edo naturagune babestu baten deklarazio baten lantze-prozedura hasita, ezingo da egin errealitate fisikoa, geologikoa eta biologikoa nabarmen aldatuko duen ekintzarik, Plan horretako helburuak edo naturagune baten deklarazioa ekarri duten helburuak lortzea ezinezko bihurtzen badu edo era nabarmenean zailtzen badu aldaketa horrek.
2. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako hasierako akordioa eginda, ezingo da eman errealitate fisiko, geologiko edo biologikoa aldatzeko ekintzak dakartzan baimen, lizentzia edo emakidarik ezta interesdunentzako inolako ahalmenik ere, Plana edo naturagunea kudeatzeko eskumena duen foru-organoaren aldeko txostenik gabe. Txosten hori aurkakoa izango da egiaztatzen bada, horretarako tramitatuko espedientearen, ekintza horrek Planaren helburuak edo naturagune baten deklarazioa ekarri duten helburuak lortzea ezinezko bihurtzen duela edo era nabarmenean zailtzen duela.
3. Administrazio baimen-emaileak edo ikuskatzaileak, ofizioz edo aurreko apartatuan aipatutako foru-organo eskudunak eskatuta, eskatuko du foru-organo eskudunak egin dezala txosten hori hilabete bateko gehieneko epean, izapidetutako administrazio-espedientearen kopia igorrita.
4. Espediente horretan emandako ebazpenak zehazten badu baimena, lizentzia edo emakidaren prozedurarekin ezin dela jarraitu edo interesdunek aipatutako ekintzak ezin dituztela egin, ebazpen horren aurka indarrean dagoen legerian aurreikusitako errekurtsioak jarri ahal izango dira.
5. Foru-organo eskudunak aginduko du gera daitezela ezagutzen dituen eta 1 eta 2. apartatuetan zehazten diren baldintzak gertatzen diren jarduketa materialak.



## 25. artikulua Habitat mehatxatuak

Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailak lortutako informaziotik ondorioztatzen bada ondo kontserbatutako eremu bat, egoera hori alda dezakeen perturbazio-faktore batek mehatxatua dagoela, babes-araubide prebentibo bat ezarriko da eta honetan oinarrituko da:

1. Lursailen titularrek agintaritza-agenteei eta Eusko Jaurlaritzaren saileko ordezkariari informazioa eman beharko diete eta sarbidea erraztu beharko diete, perturbazio-faktoreak daudela egiaztatzeko helburuarekin.
2. Eremuan bertako egoera mehatxa dezaketen perturbazio-faktoreak daudela egiaztatuz gero, 24. artikuluan ezarritako kautelazko babes-neurriak hartuko dira.
3. Adierazitako kautela-neurria ez bada aski, Eusko Jaurlaritzaren sailak behar diren neurriak har ditzake perturbazio-faktorea deuseztatzeko edo murrizteko, baita behin-behineko babes-araubide bat ere, baldin eta aurrez interesdunei entzunaldia emateko tramitea egiten bada, informazioa jendaurrean jartzen bada eta eragiten dien administrazioei kontsulta egiten bazaie, horrek ez du eragozten prebentzio-neurriak hartzeko aukera eta ingurumenaren erantzukizunari buruzko araudian aurreikusitako ingurumen-kalteak saihestea.

### *IV. kapitulua. Natura-ondarea ezagutu eta babesteko bestelako tresnak*

## 26. artikulua Lotura ekologikoaren plangintza

1. Lotura ekologikoa bermatzeko eta lurraldea leheneratu behar denean, natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak, hiru urteko epean lege hau indarrean jartzen denetik hasita, Lotura eta Leheneratzeko Ekologikoen Plana egingo du, beharrezkoa baita lotura eta leheneratze ekologikoa ziurtatuko duen azpiegitura berdea ezartzeko, hori grafikoki ikusi ahal izateko kartografia egoki bat txertatuz. Plangintza hori, Ingurumeneko Aholku Batzordeak aurrez txostena eginda, Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko da.





2. Lotura eta lehengoratzeko ekologikoen planaren helburua izango da euskal lurraldeko azpiegitura berdea osatzen duten lurralde-elementuak identifikatu eta kontserbatzeko gidalerroak markatzea, eta administrazio publikoek egingo duten lurralde- eta sektore-plangintzak aukera ematea eta ziurtatzea ekosistemek lotura ekologikoa eta funtzionaltasuna dutela, klima-aldaketa arintzen dela eta horretara egokitzen dela, eremu estrategikoen zatiketarik ez dagoela loturarako eta ekosistema narriatuak leheneratzen direla.
3. Lotura eta leheneratze ekologikoen planak kontuan izango ditu, bereziki, besteak beste, naturagune babestuak, desagertzeko arriskuan dauden edo Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitatak eta galzoriko espezieak, mendi-eremuak, ibai-ibilguak, hezeguneak, abelbideak, korrante ozeanikoak, interes geologikoko tokiak, urpeko arroilak, lotura errazten duten ibilbide migratzaileak, hainbat sektorek ekonomikoki aplikatutako jardunbide egokien ondorioz sortutako balio natural handiko sistemak, leheneratu beharreko lehentasunezko habitatak, naturaren kontserbazio-bankuek eragiten dieten lursailak eta Paisaiaren Europako Hitzarmena (2000. urteko urriaren 20an Florentzian egina) aplikatzearen ondorioz administrazio eskudunek erabilitako tresnak.

## 27. artikulua Igarobide ekologikoak eta iragazkortasuna

1. Lurraldearen koherentzia eta lotura hobetzeko eta espezieek aske zirkulatzeko helburuarekin, euskal administrazio publikoek identifikatu egin behar dituzte lurralde-antolamenduaren tresnetan eta Lotura eta Leheneratze Ekologikoen Planean eta gainerako ingurumen-plangintzan igarobide ekologiko gisa balio duten eta iragazkortasun handiagoa bermatzen duten natura-ondareko eta lurraldeko elementuak, eremuen eta espezie-populazioen arteko lotura mantentzeko edo lortzeko helburuarekin, habitaten eta ekosistemen zatiketa saihestuz. Horretarako, lehentasunezko papera emango zaie ibai-ibilguei, abelbideei, mendi-eremuei eta lurraldeko beste elementu batzuei, linealei eta jarraituei, edo lotura-puntu gisa jarduten dutenei, naturagune babestuak diren kontuan izan gabe.
2. Lurraldean eragiten duten azpiegiturak hegaztiei behar beste mugikortasun geografiko emanaz gauzatu behar dira, hegaztien migrazioa sustatuz eta hegaztien banaketa eta truke genetikoa zailtzen duten barrerak sortzea saihestuz; halaber, balizko mekanismoak aurreikusiko dira basafaunaren istripu bidezko heriotza-arriskuak saihesteko.



3. Euskal administrazio publikoek sustatu egingo dute, ezaugarri naturalak direla eta, basafiora edo basafaunarako naturagune babestu garrantzitsuak funtzionalki konektatzeko balio dezaketen lurraldeak leheneratzea eta sortzea; horrela, beste prozesu ekologiko batzuen artean, populazioen arteko truke genetikoa, espezie horien arteko espezimenen migrazioa edo polinizazioa ahalbidetuko dira.
4. Autonomia-erkidegoaren administrazioak, bere eskumen-eremuan, behar diren neurriak hartuko ditu ur-inguruneko lotura bermatzeko, eta sustatu egingo du paduretako landare belarkara, urmael, itsasertz, ibai eta ibai-ibilguen inguruetan dauden lurretako zuhaixka-erako eta zuhaitz-erako landare-birsorkuntza. Era berean, neurriak hartuko ditu arrain-fauna banatu eta ugaltzen dela bermatzeko, oztopoak kentzea sustatuz eta espezie basatien eskakizunetarako emari ekologiko egokiak mantenduz. Halaber, itsas eremuak, marea-inguruneak, labarrak, hondartzak, padurak, dunak eta kostako gainerako habitatak babestuko dira.

## 28. artikulua Iragazkortasun ekologikoaren neurriak

1. Aurreko artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako:
  - a) Natura-ondarearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak aurreko artikuluan 1. apartatuan adierazitako ezaugarriak biltzen dituen igarobide ekologikoen katalogo bat onartuko du. Autonomia-erkidegoaren kartografia ofizialaren araberrako eskala egokiko mugaketa kartografiko bat ere izango du katalogo horrek.
  - b) Naturagune babestuen antolamendu- eta kudeaketa-tresnek eta, orokorrean lurraldekoek, igarobide ekologikoak bermatu eta sustatzeko neurriak izan behar dituzte, lehentasunezko papera eman ez lurraldeko ibai-ibilguei eta bestelako elementuei, linealei eta jarraituei, edo lotura-puntu gisa jarduten dutenei, kontuan izan gabe naturaguneak diren.
  - c) Garraioaren eta energia banatzeko linea berriak hegazti-faunarentzako elektrokuzio- eta kolpe-arriskuak murrizteko eran diseinatu beharko dira.
  - d) Lurreko garraio-azpiegiturak basafaunako espezieen zirkulazioa saihesten duten barrera fisikoak sortzea saihesten dela kontuan izanda diseinatuuko dira.
  - e) Natura-inguruneko itxiturek basafaunak aske zirkulatzen utzi behar dute.



- f) Titulartasun publiko edo pribatuko plan, programa eta proiektuek neurriak izan behar dituzte espezie basatien zirkulazio askean edo zirkulazio hori sustatzeko balio duten igarobideetan izan dezaketen eragina saihestu edo murrizteko.
- g) Eraiki gabeko azalerak, bertako landaretza kendu bada, landareztatu egin behar dira ahalik eta azkarren eta eremuko ezaugarriekiko era egokian.
- h) Sortu edo leheneratutako igarobide ekologikoak halakotzat identifikatzen dira Lege hau garatzen duen araudiak, kasu hauetarako, ezartzen dituen seinaleen arabera.

## 29. artikulua Lurzorua funtzio natural gisa

Ingurune fisikoaren elementu gisa eta natura-ondarearen zati gisa, lurzorua lursailaren geruza azalekoena osatzen duen elementu organiko eta inorganikoen nahastea da, lodiera aldakorrekoa eta alboko etena duena. Lurzorua bereziki kontuan hartu behar den ingurune bat da karbonoa atxikitzeke duen gaitasunarengatik.

1. Euskal administrazio publikoek sustatu egingo dute ezaugarri hauek dituzten eremuak identifikatzea: higadura-arriskua, materia organikoaren galera, trinkotzea, lurren gazitzea eta irristatzea, baita degradazio-prozesu bat izan dutenak ere. Hala, helburuak ezarriko dituzte eta neurri egokien programak egingo dituzte aipatutako arriskuak murrizteko eta horien ondorioen aurka egiteko.
2. Halaber, saihestu egingo dute lurzorua zigilatzea edo artifizializatzea, abandonatutako lursailen leheneratzea sustatuz.



### 30. artikulua Karsta eta zuloak

1. Osagai nagusi gisa arroka karbonatatuak dituzten karst-sistemak hiru dimentsioko sistema natural gisa kudeatzen dira. Sistema horiek arroka, ur, lurzoru, landaredi eta elementu atmosferikoek integratzen dituzte, eta arreta jartzen zaio lurra, airea eta uraren arteko erlazio interaktiboari eta kontuan hartzen da arro hidriko osoa edo arroak bati baino gehiagori eragiten zaien kasuan, berriz kargatzeko nahiz deskargako eremuak hartuz.
2. Oro har, baldintza naturaletan zaindu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldeko kareharrizko lurzoruetan dauden haitzulo, leize eta lurpeko gainerako kanalak.
3. Debekatuta dago horien ezaugarri fisikoak aldatzea edo hondatzea, horien guztien barneko edozein eratako material edo elementu naturalak edo artifizialak baimenik gabe ateratzea, isuriak egitea eta bertako oreka ekologikoaren baldintzak alda ditzakeen edozein eratako objektuak sartzea.

### 31. artikulua Salbuespenezko kalte- edo arrisku-egoerak

Natura-ondarean kalteak edo arrisku-egoerak sortzen direnean meteorologia, biologia edo ekologiako salbuespenezko egoeren ondorioz, izan naturalak edo istripuen edo gizakiaren edozein esku-hartzeren ondoriozkoak, administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte, baita behin-behineko luzamenduak edo debeku bereziak ere eta arriskua saihestu edo murriztu, kaltea arindu edo eragin zaien baliabide naturalak leheneratzeko beste edozein. Horrek ez du eragozten ardura duen pertsonari ondoren ingurumen-erantzukizuna eskatzea.

### *V. kapitulua. Intereseko habitatak kontserbatzea*

### 32. artikulua Euskadiren intereseko habitat naturalen zerrenda eta desagertzeko arriskuan dauden habitaten katalogoa

1. Natura-ondarearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailaren mende, izaera administratiboarekin eta eremu autonomikoarekin, Euskadiren intereseko habitat naturalen zerrenda bat sortuko da. Bertan, Batasunaren eta



- eskualdearen intereseko habitatak integratuko dira eta bere baitan, desagertzeko arriskuan dauden habitaten katalogoa. Biak araudiaren arabera prestatuko dira.
2. Katalogoan desagertzeko arriskuan dauden habitatak sartuko dira, betiere horiek kontserbatzeak edo, halakorik bada, leheneratzeak babes- eta kontserbazio-neurri espezifikoak eskatzen baditu, gutxienez, horrelako egoeraren batean egoteagatik:
    - a) Bere banaketa-eremua oso murriztua izatea eta gutxitzen aritzea.
    - b) Bere banaketa-eremu naturalaren zati handiena deuseztatuta egotea.
    - c) Bere osaera, egitura eta funtzio ekologikoek narriadura handi bat izatea banaketa naturalaren zatirik handiengan.
    - d) Aldaketa atzeraezinezko arrisku handian egotea epe labur edo ertainean bere banaketa-eremuaren zati esanguratsu batean, klima-aldaketaren ondorengatiko aldaketa-arriskua barne.
  3. Natura-ondarearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak emandako aginduaren bidez sartuko dira habitatak desagertzeko arriskuan dauden habitaten katalogoan, Ingurumen Batzordeak proposatuta, Foru Aldundiek proposatuta edo natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak proposatuta, hori egitea aholkatzen duen informazio teknikoa edo zientifikoa dagoenean.
  4. Edozein herritar edo erakundek eskatu ahal izango du habitat bat sartzeko prozedura hastea, dagokion eskaerarekin proposatutako neurriaren argudio zientifiko bat aurkezten bada.
  5. Batasunaren intereseko habitatak dira habitatei buruzko zuzentarauaren I. eranskinean agertzen direnak eta EAEn daudenak.
  6. Lehentasunezko habitatak dira Europako lurraldean desagertzeko mehatxua duten habitat motak. Habitat horiek kontserbatzea erkidegoarentzat ardura berezia da, kontuan izanik habitat horren banaketa naturalaren eremuaren proportzioak duen garrantzia Europako lurraldean.
  7. Euskadiren intereseko habitat naturalen zerrendako habitat-kudeaketaren helburua izango da habitatak mantentzea edo, halakorik bada, kontserbazio-egoera onera leheneratzea. Azken ebaluazio-txostenean txar (U2) gisa sailkatu den kontserbazio-egoera duten habitatak desagertzeko arriskuan dauden



habitaten katalogoan txertatuko dira, kontserbazio-egoera hobera pasatu direla ezartzen den arte.

### 33. artikulua Ondoreak.

Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Euskal Katalogoan habitat bat sartzeak ondore hauek izango ditu:

- a) Azalera egoki bat ezarriko da kudeaketa-tresna batean edo naturagune babestuek babesteko figura batean, berri batean edo lehendik dagoen batean.
- b) Administrazio eskudunak behar diren neurriak zehaztu eta hartuko ditu atzeraldia gelditzeko eta habitat horien desagertze-arriskua deuseztatzeko plangintza-tresnetan eta helburu horiekiko egokiak diren bestelakoetan.

### 34. artikulua Habitatak kontserbatu eta leheneratzeko planak.

Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak desagertzeko arriskuan dauden habitatak kontserbatu eta leheneratzeko planak onartu ahal izango ditu. Horiek, gutxienez, alderdi hauek izango dituzte: egoeraren eta mehatxu nagusien diagnostiko bat eta kudeatu, kontserbatu edo leheneratzeko behar diren neurriak, jarduketak eta mugak. Plana onartu eta aldatzeko prozeduran hauek guztiak egingo dira: jendaurreko informazioaren izapide bat eta entzunaldia interesdunei, kontsulta administrazioei eta bestelako erakunde inplikatuiei eta Ingurumeneko Aholku Batzordearen aurretiazko txostena. Era berean, beste habitat batzuetarako erabilera-planak onartu ahal izango dira, horien kontserbazio-beharrek hori aholkatzen dutenean.

### 35. artikulua Habitaten ezaugarriak.

Natura-ondarearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak ezarriko ditu Euskadiren Intereseko Habitat Naturalen Zerrendako eta Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Katalogoko habitat bakoitzaren ezaugarriak, lege honetan aurreikusitako edukien ondoretarako eta habitat horiek behar bezala erraz identifikatzeko. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren



sailak ezarri ahal izango ditu kudeaketarako oinarriko orientazioak habitaten mehatxu nagusien eta aprobetxamendu-aukeraren arabera.

#### IV. TITULUA NATURAGUNE BABESTUAK

##### *I. Kapituluak. Xedapen komunak*

##### **36. artikulua Kontzeptua**

Naturagune babestu deklaratu daitezke baldintza hauetako baten bat betetzen denean:

- a) Autonomia-erkidegoko ekosistema, paisaia edo formazio geologiko edo geomorfologiko naturalen adierazgarri izatea.
- b) Era nabarmenean eragitea ekosistemen kontserbazioan horiek egoera natural, seminatural edo aldaketa gutxikoan egoteko, ziurtatuz funtsezko prozesu ebolutibo ekologikoak, espezieen migrazioa eta natura-ingurunea arautzeko funtzioak mantentzen direla.
- c) Paper garrantzitsua izatea funtsezko prozesu ekologikoen garapenean.
- d) Desagertzeko arriskuan dauden kontserbazio-egoera oneko habitat naturalen laginak izatea edo, nazioarteko hitzarmenen, Europar Batasunaren edo xedapen espezifikoen arabera, babes berezia behar izatea.
- e) Espezie mehatxatu edo, nazioarteko hitzarmenen, Europar Batasuneko araudiaren edo xedapen espezifikoen arabera, babes berezia behar duten espezie gisa katalogatutako animalia- edo landare-populazioak izatea.
- f) Ondare geologikoaren elementuak izanik, duten garrantzi zientifikoarengatik, historia geologikoan duten adierazgarritasunarengatik, berezitasunarengatik edo arrarotasunarengatik erkidego, estatu edo nazioarteko inbentarioen zati izatea.
- g) Hauskortasun, arrarotasun edo berezitasunarengatik nabarmentzen diren elementu naturalak izatea.
- h) Ingurune naturala zientifikoki ikertzeko, ezagutzeko eta interpretatzeko edo ingurumen-parametroak ikertzeko eta kontrolatzeko aukera ematea.



- i) Ezaugarri ekologiko egokiak izanik, eremuko eta bere inguruneko tokiko populazioen eta komunitateen aurrerapenari ekarpena egitea, eta eremuko garapen ordenatuaren elementu dinamizatzailerik gisa balio izatea.
- j) Ereku naturaleko balio kultural, historiko, arkeologiko edo paleontologikoak herentzia kulturalaren lagin adierazkor eta baliotsu bat izatea.
- k) Edertasun bereziko edo balio kulturalerako landa-paisaia harmoniatsu bat osatzea, edo paisaia orokorrean elementu bereziak edo bereizgarriak izatea.

### 37. artikulua Tipologia.

Naturagune babestuak kategoria hauetako batean sailkatzen dira:

- 1. Naturagune babestuak. Kategoria honetakoak dira parke naturalak, erreserba naturalak, monumentu naturalak eta pasaia babestuak.
- 2. Natura 2000 Sareko guneak. Kategoria honetakoak dira Batasunaren garrantzizko lekuak (BGL), Kontserbazio Bereziko Erekuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Erekuak (HBBE).
- 3. Naturagune babestuak nazioarterako tresnak aplikatzearen ondorioz. Kategoria honetakoak dira biosferaren erreserbak, RAMSARn hitzarmenaren nazioarterako garrantzizko hezeguneak, UNESCOk deklaraturako geoparkeak, OSPAR hitzarmenak babestutako eremuak, Munduko Ondarearen Zerrendako naturaguneak eta Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

### 38. artikulua Kategoriak gainjartzea

- 1. Leku berean gainjartzen badira naturagune babestuen hainbat kategoria, babesaren eta kategoria bakoitzari aplika dakizkiokeen araubideen arteko koherentzia bermatzeko, eremu bakoitzaren arau espezifikoko araubideak eta tipologia bakoitzaren araudi orokor araubideak eskatzen dituen plangintza-tresnak dokumentu integratu bakarrean bateratu behar dira.
- 2. Lurralde bakarrean gainjartzen diren hainbat kategorien artean Baliabide Naturalak Antolatze Planaren duen bat badago, aurreko apartatuan aipatzen den integrazioa gauzatu egin behar da plangintza-tresna horretan.





3. Lurralde berean gainjartzen diren naturagune babestuak kudeatzeko plangintza-tresnak, halaber, bateratu egin behar dira dokumentu integratu batean. Lurralde berean hainbat kategoria gainjartzen direnean baten batek erabilpenerako eta kudeaketarako egitamu bat badu, kudeaketa-plangintzako tresnak bertan integratu behar dira.

### 39. artikulua Mugaketa eta kartografia

1. Naturagune babestuen deklarazioek eta izendapenek kartografia bat izan behar dute eta horiek, autonomia-erkidegoaren kartografia ofizialaren arabera eskala egokiaren arabera, eragiten zaien lursailen lurralde-eremua zehaztuko dute. Kartografiak naturagune babestuaren kanpoko mugak izango ditu eta, halakorik bada, hartutako zonifikazioak eragiten dien eremuko barne-eremuak eta ezarriko liratekeen babes-eremu periferikoak.
2. Naturagune babestuaren mugaketa kartografikoa naturagunearen deklarazioa edo izendapena ekarri duen prozeduraren hasierako fasetik ezartzen da; horrek ez du eragozten tramitazioan aldatu ahal izatea, eta horretarako ez da espedientea berriz hasi beharko.
3. Naturagune babestua deklaratu edo izendatuta, bere mugaketa lursailean zehaztu daiteke, ofizioz edo erakundeek edo zuzeneko interesdunak direla egiaztatzen duten pertsonen era arrazoituan eskatuta. Administrazio jarduleak hori iragarriko du dena delako Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean hamabost egun lehenago eta eragiten zaien udal eta toki-erakundeetan ediktuek ezarrita, horietan parte har dezaten interes legitimoak dituzten pertsonen.
4. Administrazio jarduleak, egokitzat jotzen badu, naturagune babestuan edo, hala badagokio, zonifikatutako eremuetan mugak ezar ditzake, deklarazio- edo izendapen-prozeduraren tramitazioan behin-behineko eran.
5. Naturagune babestuen edo zonifikatutako eremuen mugek berariaz bat egiten badute mendi publiko, itsas-lehorreko jabari publiko, jabari publiko, jabari publikoko ibilgu edo udal-mugarteen mugekin, kasu bakoitzean mugaketaren araudi espezifikoa aplikatuko da.



#### 40. artikulua Informazio geografikoa sartzea jabetza-erregistroan

1. Naturagune babestuei buruzko informazio perimetrala beti sartuko da erregistro-finkaren informazio-sistema geografikoan, hipoteka-legerian ezarritakoaren arabera.
2. Ondorio horietarako, natura-ondarearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailak eguneratuta mantenduko du aurreko apartatuan aipatzen diren eremu babestuak identifikatu eta mugatu ahal izateko behar den informazioa. Erregistroko informazio guztian, baita finkei buruzko kalifikazio-notetan edo idatzagiritan ere, betiere erregistro-finken geoerreferentzia-sistemen arabera ingurumen-babes mota baten mende dauden eremuekin gurutzatzen badira edo mugakideak badira. Egoera hori adieraziko da lurralde-informazio uztartu gisa eta soilik informazio-ondorioetarako. Nolanahi ere, gomendatzen da, gainera, ingurumen-agintari eskudunei kontsulta egitea.
3. Era berean, Higiezinaren Katastroak informaziorako sarbidea izango du, legean aurreikusitako baldintzetan, araudi araugilean ezarritakoaren arabera.

#### 41. artikulua Seinale-zortasuna

1. Naturagune babestu baten mugei barneko lursailek identifikatuko dituzten seinaleak instalatzeko nahitaezko zortasuna izango dute.
2. Seinale horiek instalatzeko zortasunak esan nahi du zortasunpeko landek bidea eman behar dutela eta seinaleak ezarri, kontserbatu eta erabiltzeko lanak egiten utzi behar dutela.
3. Zortasunak deklaratu eta ezartzeko, aski da aurretiazko instrukzioa egitea eta, interesdunen entzunaldiarekin, zortasunak ezartzeko komenigarritasuna eta behar teknikoa justifikatzen duen espedientea ebaztea.
4. Jabetza nahitaez kentzeari buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera, seinale-zortasuna ezarriz gero dagokion kalte-ordaina jasoko da.

#### 42. artikulua Onura publikoa



1. Eremu bat naturagune babestu deklaratzek onura publikoa dakar, eragiten zaien ondasunen eta eskubideen desjabetze-ondorioetarako. Aurreikuspen hori, era berean, aplika daiteke naturagune babestuen eta igarobide ekologikoen gune periferikoen baitako lursailetan.

#### **43. artikulua Tanteorako eta atzera eskuratzeko eskubideak**

1. Eremu bat naturagune babestu gisa deklaratzek administrazio kudeatzaileak kostu bidezko eta inter vivos egindako egintza edo negozioen tanteorako eta atzera eskuratzeko eskubideez baliatzea dakar, baldin eta egintza edo negozio horiek naturagunearen barneko ondasun higiezinetan egokitzen diren benetako eskubideak sortu, transmititu, aldatu edo eskualdatzea badakarte.
2. Transmisio-egileak berariaz jakinaraziko dizkio administrazio kudeatzaileari egin nahi den transmisioaren prezioa eta funtsezko baldintzak eta, hala badagokio, aipatutako transmisioa prestatu den eskritura publikoaren kopia fede-emailea.
3. Egin nahi den transmisioaren jakinarazpenari administrazio kudeatzailearen erregistroan sarrera eman ondorengo egunetik hiru hilabeteko epean administrazioa tanteo-eskubideaz balia daiteke. Tanteo-eskubideaz baliatzeari buruzko ebazpenaren jakinarazpenik gabe pasatzen bada epe hori, proiektatutako besterentzea era librean gauza daiteke. Administrazio kudeatzaileak tanteo eskubideaz baliatzea erabakitzen duen kasuan, hitzartutako prezioa ordaindu beharko du urte batetik gorakoa ez den epe batean.
4. Administrazio kudeatzailea, tanteo-eskubiderako aurreikusitako baldintza berdinetan, atzera eskuratzeko eskubideaz balia daiteke transmisio-eskritura publikoaren jakinarazpen fede-emailetik sei hilabeteko epean.
5. Eskatutako jakinarazpenen bat egiten ez denean edo transmisioaren prezioa edo funtsezko baldintzak aipatzen ez direnean, baita transmisioarengatik prezioa gutxiago bada edo baldintzak jakinarazitakoak baino kostu txikiagokoa bada, administrazio kudeatzailea atzera eskuratzeko eskubideaz balia daiteke sei hilabeteko epean gauzatutako transmisioaren berri modu fede-emailean izaten denetik.

#### **44. artikulua Babes-eremu periferikoak**



1. Eremu babestuetan, bereziki Natura 2000 Sarean sartutakoetan, kanpoko ekologia- edo paisaia-inpaktuak saihestera bideratutako babes-eremu periferikoak ezar daitezke. Eremu horietan erabilera eta jardueretarako behar diren mugak ezarri ahal izango dira eremu horien helburuak lortzeko.
2. Babes-eremu periferikoen mugaketa eta eremu horretako erabilera eta jardueren araubide eta muga espezifikoak eremu babestuaren deklarazio- edo izendapen-arauan sartu beharko dira edo dagokion plangintza-tresnan.

#### 45. artikulua Izendapena babestea

1. 35. artikuluan ezarritako naturagune babestuen izendapenak soilik erabiliko dira Lege honetan eta bere garapen-araudian aurreikusitako ondorioetarako.
2. Naturagune babestu baten deklarazioak esan nahi du debekatuta dutela erabiltzea, salbu eta organo kudeatzaileak emandako baimen administratiboaren kasuan, bere izendapena eta anagrama edozein eratako pertsonen, publikoak edo pribatuak, merkataritza, publizitate edo antzeko irabazizko helburu baterako, dagozkien erregistro publikoek eskuratutako eskubideei eragotzi gabe.

#### 46. artikulua Erauzketa-jarduerak

1. Babesten diren ingurumen-balioekin bateraezinak diren erauzketa-jarduerak debekatu egingo dira naturagune babestuen mugen eta babes-eremu periferikoen barnean.

Naturagune babestu bakoitzeko plangintza- eta/edo kudeaketa-tresnek zehazten duten bateraezintasun hori, era egokian arrazoituz ingurumen-balioekiko eta eremu horien babes-irizpideekiko eta eremu horien babes-eremu periferiekiko.

2. Debekatuta dago kasu guztietan naturagune babestuetako lurralde-mugen barneko lursailetan, horien babes-eremu periferikoetan eta igarobide ekologikoetan haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea eta lurzoruko zein lurpeko hidrokarburoak ustiatzea.



## 47. artikulua Euskadiko Naturagune Babestuen Sarea

1. Lege honen arabera deklaratu edo izendatutako naturagune babestuek Euskadiko naturagune babestuen sarea osatzen dute, eta horrek ez du eragozten Europako edo nazioarteko beste sare batzuetan integratuta egotea.
2. Sareak helburu hauek ditu:
  - a) Naturagune babestuak era koherente eta koordinatuan planifikatu eta kudeatzea, irizpide bateratuak aplikatuz.
  - b) Naturagune babestuak kanpoan sustatzea era homogeneoan eta batera.
  - c) Segimendu, zaintza eta ebaluaziorako sistemak koordinatzea.
  - d) Naturagune babestuak eta basabizitza kontserbatzeko estatuko, Batasuneko eta nazioarteko programetan elkarlanean aritzea.
  - e) Informazioa trukitzea beste sare batzuekin edo babes-sistema batzuekin, baita naturaren babes eta kontserbazioarekin erlazionatutako nazioko, Batasuneko edo nazioarteko erakundeekin ere.
3. Eusko Jaurlaritzari dagokio, naturagune babestuen administrazioan eskumena duten foru-organoekin koordinatuta, aurreko apartatuan adierazitako helburuak betetzeko behar diren ekintzak egitea; horretarako, sarea behar beste garatuko da araudiaren aldetik.
4. Halaber, sarearen helburuak lortzeko, naturagune babestuen alorrean aholkularitzarako eta herritarren partaidetza bideratzeko organoa edo kide anitzeko organoak eratu ahal izango dira. Horien osaera, antolamendua eta funtzionamendua araudiaren arabera arautuko dira. Lege- eta araudi-xedapenek esleitzen dizkioten funtzio eta eskumenez baliatuko da, baita esleitzen edo eskuordetzen zaizkionez ere.

## *II. kapitulua. Naturagune babestuak*

### 48. artikulua Tipologia

1. Naturagune babestuak kategoria hauetako batean sailkatzen dira:
  - a) Parke naturalak.



- b) Erreserba naturalak.
- c) Monumentu naturalak.
- d) Paisaia babestuak.

#### 49. artikulua Parke naturalak

1. Parke naturalak eremu zabal samarrak dira eta gizakiaren ustiapen edo okupazioarengatik gutxi transformatuak, ekosistemen edo habitaten adierazgarritasunagatik, bertako flora, fauna edo ondare geologiko bereziarengatik (bertako formazio geomorlogikoak edo paisaien edertasuna barne) balio ekologiko, estetiko, hezigarri eta zientifikoak dituztenak eta beren kontserbazioak lehentasunezko arreta merezi duena.
2. Parke naturaletan baliabide naturalen aprobetxamendua muga daiteke, kasu guztietan debekatuz parkea sortzea justifikatu duten helburuekiko bateraezintasunak, izan gainazalean, lurpean edo hegalkinean.
3. Parke naturaletan bisitariak sar daitezke muga zehatzekin, natura-ondarea eta bertako lursailtako titularren eskubideak babesten direla bermatzeko.
4. Parke naturaletan Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan bat, erabilpenerako eta kudeaketarako egitamu bat eta organo kudeatzaileari atxikitako organo aholkulari eta laguntzaile gisa Patronatu bat izaten dira.

#### 50. artikulua Erreserba naturala

1. Erreserba naturalak neurrizko hedapena edo murriztua duten naturaguneak dira. Horrelako naturaguneak sortzeko helburua da ekosistema, komunitate edo elementu biologikoak babestea, baita interes geologikoko tokiak ere, (horiek guztiek duten arrarotasun, hauskortasun, garrantzi edo berezitasunarengatik balorazio berezia merezi baitute), baso zaharrak edo baso-erreserbak edo antzekoak barne.
2. Erreserbetan mugatuta dago baliabideak ustiatzea, salbu eta ustiapen hori babestu nahi diren balioak kontserbatzearekin bateragarria denean. Oro har, debekatuta dago material biologiko edo geologikoa biltzea, salbu eta ikerketa, kontserbazio edo hezkuntzako arrazoiengatik hori egitea baimentzen bada, aurrez dagokion administrazioak baimenduta.



3. Erreserbetan, deklarazio-dekretuak txertatuko ditu dekretuko helburuak lortzeko behar diren arauketak eta neurriak. Horrek ez du eragozten plangintza edo kudeaketarako tresna gehigarriak onartzea.

### 51. artikulua Monumentu naturala

1. Monumentu naturalak babes bereziaren xede izatea merezi duten berezitasun, arrarotasun edo edertasun nabariko formazioek eratutako naturako gune edo elementuak dira.
2. Bereziki, monumentu naturaltzat jotzen dira:
  - a) zuhaitzak eta baso bereziak;
  - b) fauna eta floraren mikroerreserbak;
  - c) interes geologikoko tokiak, beren ezaugarriek horrela aholkatzen dutenak, besteak beste:
  - d) aztarnategi paleontologikoak eta mineralogikoak.
  - e) Gearen estratotipoak eta gainerako elementuak interes berezia dutenak zientzia, kultura edo paisaiako balioen berezitasunagatik edo garrantziagatik.
3. Monumentu naturaletan baliabideak ustiatzea mugatuta dago, salbu eta erabat koherentea bada babestu nahi diren balioen kontserbazioarekin, bere deklarazio- edo kudeaketa-arauetan ezarritakoaren arabera, edo ikerketa- edo kontserbazio-arrazoiengatik edo gutxieneko inpaktua duten jarduera ekonomiko bateragarriak izateagatik eta ongizate sozioekonomikoari edo populazioari ekarpena egiteagatik ustiapen hori baimentzen bada, aurrez organo kudeatzaileak dagokion administrazio-baimena emanda.

### 52. artikulua Paisaia babestua

1. Paisaia babestuak dituzten balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurralde-eremuak dira, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabera.
2. Paisaia babestuen helburu nagusiak hauek dira:
  - a) Bereizten dituzten balio biologiko edo geologiko bereziak kontserbatzea.



- b) Natura eta kulturaren arteko interakzio harmoniatsua gordetzea toki zehatz batean, leku horretan bizi diren pertsonekin.
3. Paisaia babestuetan bertako balioak eta natura-ondarea gordetzen laguntzen duten lurralde-praktikak eta -erabilerak mantentzen ahaleginduko da.

### 53. artikulua Deklarazio-prozedura

1. Naturagune babestuak Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez deklaratu dira.
2. Parke naturalak eta pasaia babestuak eta erreserba naturalak deklaratzek (deklaratzea aholkatzen duten ezaugarriak eta dibertsitatea badituzte) eskatzen du eremu horri dagokion Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana lantzea eta onartzea aurrez. Kasu horietan eta behin-behineko eskakizun hori errespetatuz, deklarazio-dekretuaren tramitazioa dagokion Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren tramitazio-espeditentean integra daiteke.
3. Erreserba naturalak, monumentu naturalak eta pasaia babestuak deklaratzek, gutxienez, hau eskatzen du:
  - a) Eremuko ezaugarriak deskribatzea.
  - b) Deklarazio-proposamena justifikatzea.
  - c) Eremu hori behar bezala babesteko beharrezkotzat jotzen den muga geografikoak zehaztea, dagokien markatze kartografikoarekin.
  - d) Eremuetan eragiten duten erabilera eta jarduerak arautzeko araudia.
4. Deklarazio-dekretua lantzeko prozedura abenduaren 22ko 8/2003 Legean (xedapen orokorrak lantzeko prozedurari buruzkoa) ezarritakoak arautzen du.
5. Naturagune babestu batek kategoria galtzeak edo bere lurralde-eremua murrizteak eskatzen du bere deklaraziorako jarraitutako prozedura berdina tramitatzea eta soilik egin daitezke zientifikoki egiaztatutako eboluzio naturalarengatik eta segimenduan oinarrituta, babesa jartzea arrazoitu zuten oinarriak desagertu badira eta ezin badira berreskuratu edo leheneratu. Inolako kasutan ez dira bidezkoak galera hori nahita sortu bada.
6. Naturagune babestuaren lurralde-eremua handitu daiteke Eusko Jaurlaritzaren akordio bidez, eta hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, txertatu beharreko lursailak autonomia-erkidegoaren jabetzakoak badira edo beren borondatez jabeek horretarako ematen badituzte.





#### 54. artikulua Naturagune babestuak kudeatzea

1. Naturagune babestuak administratzea eskumena duten foru-organoei dagokie. Administrazio hori egingo da, Lege honek ematen dituen printzipioen baitan eta bere oinarriko aurreikuspenekin bat, orokorrean edo zehazki, eskumena duen foru-administrazioak zehazten duen eran eta zehazten dituen bide administratiboen bidez.
2. Naturagune babestu batek lurralde historiko bat baino gehiagoko azalera hartzen duenean, administrazioa foru-organo eskudunek zehazten duten eran egingo da.
3. Naturagune babestuen administrazio-organoei funtzio hauek dituzte:
  - a) Urtero egitea aurrekontua eta kudeaketa-programa.
  - b) Berezko zerbitzuetatik eratorritako funtsak eta kanpotik jaso ditzaketen baliabideak administratzea.
  - c) Zaintzea naturagune babestuen alorrean horiek babesteko Baliabide Naturalak Antolatzekeo Planean edo, hala badagokio, deklarazio-arauan aurreikusten diren arauak betetzen direla, arau horietan ezarritako txostenak eginez eta baimenak emanaz.
  - d) Zehatzeko ahala erabiltzea.
  - e) Indarrean dagoen legerian, Baliabide Naturalak Antolatzekeo Planean, EKEGetan, deklarazio-arauetan eta antzeko tresnetan aurreikusitakoak.
4. Administrazio kudeatzaileak dena delako naturagune babestua zuzendu eta kontserbatzeko arduraduna izendatzen du. Pertsona honek bere eginkizunak hainbat naturagune babestutan gauza ditzake.
5. Zuzendaritza- eta kontserbazio-arduradunaren eginkizunak hauek dira:
  - a) Naturagune babestuaren plangintza- eta kudeaketa-tresnak sustatu eta aplikatzea, behar diren jarduerak gauzatu.
  - b) Nahitaez elkarlanean aritzea eta informatzea naturagune babestuaren natura-ondarean eragina izan dezaketen eta administrazioek ingurune fisikoan garatutako jardueren inguruan.
  - c) Inbertsioen eta jarduketan urteko aurrekontua eta programa egitea eta horiek gauzatzea onartu ondoren.



- d) Egokitzat jotzen dituen ekintzak sustatzea naturagune babestuaren alde.
- e) Jardueren eta emaitzen urteko memoria egitea.
- f) Naturagune babestuaren organo kudeatzaileak eskatzen dizkion guztiak.

## 55. artikulua Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak

1. Eremu bat parke natural gisa deklaraturata, eta urte bateko epean deklarazio-dekretua indarrean jartzen denetik, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren arabera, erabilpenerako eta kudeaketarako egitamu gidari (EKEG) bat / kudeaketa-plan (KP) bat egiten da.
2. EKEGek, gutxienez, eduki hau izango du:
  - a) EKEG indarrean den bitartean gauzatu beharreko neurriak edo jarduketak, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planeko zehaztapenak betetzeko eta parke naturalaren helburuak lortzeko. Jarduketa eta neurri hauetarako adierazi egin beharko dira gauzatze-kronograma, ezarpen-kostua eta aurreikusitako finantzazio-iturriak.
  - b) Parke naturalean garatuko diren jarduera ekonomiko eta dibertimenduzkoak antolatzeko arauak.
  - c) Dena delako parkearen helburu zehatzak garatuko dituzten programak egiteko gidalerroak honi guztiari dagokionez: babeseta eta kontserbazioa; ikerketa; naturako fenomenoaren interpretazioa; ingurumen-hezkuntza; erabilera publikoa eta bisitariak gozatzeko eta erabilera eta parkean edo natura-ondarearen kontserbazioari laguntzen dioten inguruko eremuan bizi diren populazioak mantentzea.
  - d) Programatutako neurri eta jarduketaren segimendu- eta ebaluazio-programa.
  - e) Parke naturala sortzeko arrazoi izan diren edo Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana osatzen duten kontserbazio-helburuekin bat beharrezkotzat jotzen diren bestelako gidalerroak eta jarduketak.
3. EKEG eta bere aldaketak landu eta onartzeko prozedura hau da:
  - a) Kudeaketaren foru-organoren arduradunak hasierako dokumentu bat lantzea.
  - b) Dokumentu horri, gutxienez bi hilabeteko epean, jendaurreko informazio-prozedura egingo zaio eta udalek, toki-erakunde txikiak, eremuko interes



sozialak ordezkatzeko dituzten elkarteek, Ingurumeneko Aholku Batzordeak eta parke naturalaren Patronatuak txostenak egingo dizkiote.

- c) Foru-organismoak hasieran EKEG onartuko du.
- d) Hasieran onartu ondoren, EKEGi natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organismoak nahitaezkoa eta loteslea den txosten bat egingo dio, Eusko Jaurlaritzan eta eragiten zaien Foru Aldundietan hirigintzaren alorrean eskumena duten organismoek nahitaezko txostena egingo dute. Txosten horiek bi hilabeteko epean egingo dira.
- e) Foru-organismo eskudunak behin betiko onartuko du EKEG.

## 56. artikulua EKEGen indarraldia eta osagarritasuna

1. EKEG hamar urtean izango da indarrean. EKEGak nahitaez berrikusi behar dira, lege honetan onartzeko aurreikusitako tramiteak jarraituz, epe hori igarotakoan edo eremuko baldintza berrietara egokitu behar denean, bereziki Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana aldatu denean edo zaintza- eta segimendu-emaitzak horrela aholkatzen dutenean.
2. EKEGek Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak osatzen dituzte, eta horiek zehazten dutenaren mende daude. Bertako zehaztapenak nagusitu egiten dira hirigintza-plangintzaren gain eta, bateraezinak badira, organismo eskudunek indarrean dagoen hirigintza-antolamendua ofizioz berrikusi behar dute.
3. Interes publikoko arazoiek horrela aholkatzen dutenean, artikulua honetan aurreikusitako baldintza berdinetan, erreserba natural, monumentu natural edo paisaia babestu gisa deklaraturako eremu babestu bati edo hainbati eragiten dieten EKEG onar daiteke.

## 57. artikulua Parke naturalen patronatuak

Parke naturaletan organismo aholkulari, laguntzaile eta parte hartzaile bat dago, patronatu izeneko, kasu bakoitzean parke naturalaren organismo kudeatzaileari atxikitzen zaiona.

1. Parke natural bateko patronatuaren eginkizunak hauek dira:



- a) Parke naturalaren alde egokitzat jotzen dituen kudeaketak sustatu eta egitea.
  - b) Parke naturalean ezarritako arauak betetzen direla zaintzea.
  - c) EKEGeko proiektuen eta hurrengo berrikuspenen berri ematea.
  - d) Kudeaketako urteko programen berri ematea eta jarduketa gehigarriak proposatzea.
  - e) Aurrekontuaren eta inbertsioen zein jarduketan urteko programaren berri ematea.
  - f) Zuzendaritza- eta kontserbazio-arduradunak jardueren eta emaitzen inguruan egindako urteko memorien berri ematea, disfuntzioak zuzentzeko edo kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak proposatuz.
  - g) Parke naturalaren eragin sozioekonomikoaren eremuetan egin beharreko jarduketa konpentsatzaileen proiektuen berri ematea.
  - h) Parke naturalen kontserbazio, hobekuntza eta ezagutzarako egokitzat jotzen dituen neurriak proposatzea, baita parke naturalaren natura-ondarea kontserbatzen laguntzen duten jarduerak babesteko ere.
  - i) Parke naturalaren balioak aztertu, zabaldu eta horiez gozatzeko jarduketak sustatu eta bultzatzea.
  - j) Ingurumeneko Aholku Batzordeari igorri beharreko urteko memoria laburtu bat egitea naturagune babestuko kudeaketa-estrategia eta emaitzei buruz, dena delako naturagune babestuaren zuzendaritza- eta kontserbazio-arduradunaren urteko txostenetan oinarrituta.
  - k) Barne-araubidearen arauak onartu eta aldatzea.
  - l) Batzorde iraunkorrean delegatzea, halakorik balego, egokitzat jotzen dituen eginkizun guztiak.
  - m) Organo eskudunei proposatzea, lege honen helburuen arabera, sinatu behar diren lankidetzak-akordioak.
  - n) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna eta arriskua ezagutzea eta ingurunean klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko neurriak sustatu eta ezartzea.
2. Patronatuek osoko bilkuran eta batzorde iraunkorrean funtziona dezakete. Bere osaera eta funtzioak parke naturala deklaratzeko dekretuan ezarriko dira.



3. Patronatuak, gutxienez, erakunde hauetako guztietako ordezkariak osatuko dituzte: Eusko Jaurlaritza, eragiten zaien Foru Aldundietako parke naturalaren sail kudeatzaileak, eragiten zaien udalak eta toki-erakundeak, eragiten zaien eskubidedun titularrak, natura-ondarea aztertzen eta babesten ibilbide egiaztatua duten elkarteak, lehen sektoreko jardueren erakundeak.

### **III. kapitulua. Natura 2000 Sareko naturaguneak**

#### **58. artikulua Euskadiko Natura 2000 Sarearen osaera**

1. Euskadiko Natura 2000 Sareko naturagune babestuak dira Batasunaren garrantzizko lekuak (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE), Europar Batasunaren araudiaren eta horren transposizioa egiten duen legeriaren arabera.

#### **59. artikulua Izendatzeko prozedura**

1. Batasuneko garrantzizko lekuetako (BGL) proposamenak Eusko Jaurlaritzak formulatzen ditu, prozedura honen arabera.
  - a) Batasuneko garrantzizko leku berriei eta lehendik daudenak aldatzeari buruzko hasierako proposamena natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuaren aginduaren bidez egiten da. Lekuak honetan oinarrituta aukeratzen dira: Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE zuzentarauaren (habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa) III. eranskineko irizpideak eta dagokion informazio zientifikoa.
  - b) Hasierako proposamenak datuen formulario normalizatuko informazioa izan behar du, Europako Batzordearen datu-base ofizialaren arabera, eta bi hilabetez Foru Aldundien txostenak, jendaurreko informazioaren izapidea eta sektore sozial interesdunen eta eragiten dien administrazio publikoen entzunaldia egingo zaizkio. Tramite hori amaitzean Ingurumeneko Aholku Batzordeak txostena egingo du.
  - c) Proposamena Eusko Jaurlaritzaren Aginduz onartuko da behin betiko eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Datuen formulario



normalizatuko informazioa izan behar du, Europako Batzordearen datu-base ofizialaren eta Batasuneko garrantzizko lekuei aplikatzeko araubide prebentiboaren arabera.

2. Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) Dekretu bide deklaritzen ditu Eusko Jaurlaritzak eta abenduaren 22ko 8/2003 Legean (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena) ezarritakoaren arabera.
3. KBE eta HBBE deklarazio-dekretuaren edukia honako hau izango da, gutxienez:
  - a) Natura 2000 gunearen behin betiko lurralde-mugak ezartzen dituen kartografia.
  - b) Deklarazioa justifikatzen duten eta kontserbazioaren xede diren Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitat naturalen eta animalia-eta landare-espezieen zerrenda, lehentasunekoak barne, horien guztien kontserbazio-egoeraren balorazio batekin;
  - c) gunearen kontserbazio-helburuak;
  - d) Eusko Jaurlaritzak landutako gunearen kontserbazio-arau eta -gidalerroak.
  - e) Batasuneko baterako finantzaketari dagokionez, beharrezkotzat jotzen diren zenbatespenak berariaz jasotzen dituen memoria ekonomikoa;
  - f) segimendu-programa;
  - g) foru-organo eskudunak behin betiko onartu ondoren, eta deklarazio-dekretuari egiten zaion eranskin gisa, gunearen kudeaketa-jarduketak argitaratu behar dira.

## 60. artikulua Natura 2000 sarearen kudeaketa

1. Euskadiko Natura 2000 sareko guneen kudeaketa foru-organo eskudunei dagokie. Kudeaketa hori lege honek ematen dituen printzipioen eta oinarritzko xedapenen arabera izango da, foru-administrazio eskudunak oro har eta berariaz xedatutako era eta administrazio-bideak erabiliz.
2. Eusko Jaurlaritzak onartutako kontserbazio-helburu, arau eta gidalerroak oinarri hartuta, Lurralde Historikoetako foru-organoek onartuko dituzte gunek kontserbazio-egoera onean mantentzeko kontserbazio-jarduketa edo



neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea saihesteko neurri egokiak, bai eta gune horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak saihesteko neurriak ere.

3. Aurreko dokumentua izapidetu eta onartzeko 55. artikuluan parke naturalen kudeaketa-planetarako ezarritako prozedura bera jarraituko da.
4. Euskadiko Natura 2000 sareko gune batek bi lurralde historiko edo gehiagoren lurrak hartzen dituenean, kudeaketa foru-administrazio eskudunek ezartzen duten moduan egingo da.
5. Euskadiko Natura 2000 sareko guneen kudeaketa-organoek honako funtzio hauek dituzte:
  - a) Urtero egitea aurrekontua eta kudeaketa-programa.
  - b) Berezko zerbitzuetatik eratorritako funtsak eta kanpotik jaso ditzaketen baliabideak administratzea.
  - c) Euskadiko Natura 2000 sareko guneen eremuan, deklarazio-dekretuan edo dagokion plangintza-tresnan ezarritako kontserbazio-neurriak betetzen direla ziurtatzea, txostenak eginez eta behar diren baimenak emanaz.
  - d) Zehatzeko ahala erabiltzea.

## 61. artikulua Euskadiko Natura 2000 Sarearen Gida Plana

1. Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez, Euskadiko Natura 2000 Sarearen gida-plan bat onartzen du, sarea osatzen duten guneak kudeatzeko oinarritzko irizpideak ezartzen dituena. Irizpide horiek kontuan hartzen dituzte Lurralde Historikoetako foru-organoek gune bakoitza kudeatzeko onartzen dituzten gidalerroak. Era berean, sarearen kontserbazioa eta garapena ebaluatzea ahalbidetuko duten kudeaketa-adierazleak ezarriko ditu.
2. Lurralde historikoetako foru-organoek kudeaketa-gidalerroak onartuko dituzte, gida-plana eta kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: guneak kontserbazio-egoera onean mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea saihesteko neurri egokiak eta gune horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak saihesteko neurriak.

Gidalerro horiek bereziki aintzat hartu beharko dituzte azalera osoa zein bere lurzorua zati handi bat leku horietan daukaten udalerrien beharrak.



## 62. artikulua Beste naturagune babestuekin bat egitea

1. Kontserbazio bereziko eremuek (KBE) eta hegaztien babeserako eremu bereziek (HBBE) Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana duten naturagune babestuekin bat eginez gero, deklarazio-dekretuetako elementuak plan horren edukian txertatu beharko dira, koherentzia bermatzeko.
2. Kontserbazio bereziko eremuek (KBE) edota hegaztien babeserako eremu bereziek (HBBE) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana duten naturagune babestuekin bat eginez gero, kudeaketa-neurriak edo -jarduketak plan horren edukian txertatu beharko dira, koherentzia bermatzeko.

## 63. artikulua Natura 2000 Sareko guneak deskatalogatzea

Natura 2000 Sareko gune oso bat edo zati bat deskatalogatzea edo haren lurralde-eremua murriztea proposatu daiteke, baldin eta zientifikoki frogatutako eboluzio naturalak eragin dituen aldaketek justifikatzen badute, eta aldaketa horiek Eusko Jaurlaritzak Batasunaren intereseko habitat moten eta espezieen kontserbazio-egoerari buruz egindako jarraipenen emaitzetan islatzen badira. Dena dela, helburu hori lortzeko prozedurak tokia proposatzeko edo eremua deklaratzeko ezarritako izapideak bete beharko ditu eta, nolana ere, beharrezkoa izango da Europako Batzordearen onarpena lortzea.





#### 64. artikulua Zaintza eta jarraipena

1. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak eta foru-organoek, nor bere eskumenen eremuan, Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitat moten eta espezieen kontserbazio-egoera zainduko dute eta bereziki aintzat hartuko dituzte lehentasunezko habitat natural motak eta lehentasunezko espezieak, bai eta Hegaztien Zuzentzarauaren I. Eranskinean zerrendatzen diren hegazti-espezieen eta aldizka agertzen diren hegazti migratzaileen kontserbazio-egoera ere. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak jarraipen horren metodologia komuna eta ezaugarriak ezarriko dituzten gidalerroak onartuko ditu.
2. Foru-organoek Eusko Jaurlaritzari honako hauek bidaliko dizkiote: kontserbazio-egoerak eta 57.1 artikuluan aipatutako kontserbazio-neurriek jasan dituzten aldaketei buruzko informazioa, emaitzen ebaluazioa eta ezarri beharreko neurri berrien eta Europako Zuzentzarauak exijitutako txostenen inguruko proposamenak.

#### *IV. kapitulua. Nazioarteko tresnen arabera babestutako naturaguneak*

#### 65. artikulua Biosferaren erresebak

1. Eusko Jaurlaritzak biosferaren erreseba deklaratu ditzake UNESCOren Gizakia eta Biosferari buruzko (MaB) programaren esparruan aitorten hori duten ekosistemak dituzten eremuak.

Deklarazio-proposamena dagokion MaB Batzordeari aurkeztu aurretik, nahitaezkoa egin beharko dira jendaurreko informazioaren izapidea, interes sozial eta instituzionalen eta eragiten dien administrazioen entzunaldia eta Ingurumeneko Aholku Batzordearen txostena.

2. Urdaibai Biosfera Erreseba bere legeria espezifikokoak eta garapenerako araudiak erregulatzen dute, kudeaketa-eskumenak barne. Natura 2000 sareko gune edo nazioarteko garrantzizko hezegune gisa izendatutako Urdaibai Biosfera



Erreserbako eremuen inguruan lege honek ezarritakoa erabat aplikagarria da, arau-hausteen eta zehapenen araubideari dagokiona barne.

3. Urdaibai Biosfera Erreserbako lurralde-eremuaren barruan dauden Natura 2000 Sareko guneen deklarazio-dekretuetan eta dagozkien kudeaketa-gidalerroetan ezarritako aurreikuspenak Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzako Planean txertatu behar dira, osotasun koherente bat osatu ahal izateko. Kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren ardura da Natura 2000 Sareko guneen kudeaketako gidalerroak onartzea.

## 66. artikulua Geoparkeak

1. UNESCOren Munduko Geoparkeen programaren esparruan, momentuan indarrean dagoen programan edo tresnan ezarritako helburuak betetzen dituzten tokiak deklaratu daitezke geoparke.
2. Eusko Jaurlaritzaren akordio baten bidez, jendaurreko informazioaren izapideak, interesdunen, interes sozial eta instituzionalen ordezkarien eta eragiten dien administrazioen entzunaldia eta Ingurumeneko Aholku Batzordearen txostena egin aurretik, Autonomia Erkidegoaren lurraldean kokatutako geoparke berrien izendapena proposatu daiteke, dagokion programa eta araudiaren baldintzen arabera.

## 67. artikulua Nazioarteko garrantzizko hezeguneak

1. RAMSAR hitzarmeneko nazioarteko garrantzizko hezeguneak dira padurak, urtegiak edo zohikaztegiak, edota urez estalitako azalerak, naturalak edo artifizialak, iraunkorrak edo aldi batekoak, geldiak edo ibiliak, gezak, gazikarak edo gaziak, baita itsasbeheran gehienez sei metro sakon diren itsas ureko guneak ere, nazioartean bereziki uretako hegaztien habitat gisa garrantzizkoak diren hezeguneei buruzko Hitzarmenean ezarritako Nazioarteko Garrantzizko Hezeguneei Zerrendan sartu direnak.
2. Eusko Jaurlaritzaren akordio baten bidez, interes sozial eta instituzionalen ordezkarien eta eragiten dien administrazioen entzunaldia eta Ingurumeneko Aholku Batzordearen txostena egin ondoren, Autonomia Erkidegoaren lurraldean kokatutako hezegune berriak sartzeari proposatu daiteke, dagokion araudiaren arabera.



## 68. artikulua Nazioarteko arauk babestutako bestelako gunek

1. Eusko Jaurlaritzaren akordio baten bidez, jendurreko informazioaren izapideak, interesdunen, interes sozial eta instituzionalen ordezkarien eta eragiten dien administrazioen entzunaldia eta Ingurumeneko Aholku Batzordearen txostena egin ondoren, Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Konbentzioaren arabeko gune naturalak, erreserba biogenetikoak eta nazioarteko arauk babestutako bestelako gunek izendatu daitezke.



## V. TITULUA. FAUNA ETA FLORAKO ESPEZIE BASATIEN BABESA

### *I. Kapituluak. Xedapen komunak*

#### 69. artikulua Printzipio orokorrak

Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen eremuan, biodibertsitate basatia kontserbatzea bermatzeko beharrezko neurriak hartzen dituzte. Horretarako, lehentasuna ematen zaio haien habitatak zaintzeari eta araudi espezifikokoak ezartzen dira arrisku egoeran dauden espezie basatiak babesteko. Espezie horiek babes bereziko erregimenean dauden espezie basatien zerrendan edo flora eta faunako espezie basatien euskal katalogoan sartzen dira.

1. Lege honetan ezarritako printzipioen kalterik gabe, espezie basatiak babesteko euskal administrazio publikoen jarduna honako hauetan oinarritzen da:
  - a) Lehentasunezko arreta eskaintzea habitat eta espezie basatiak babesteari, haietan eragina izan dezaketen politikak definituz eta ezarriz.
  - b) Espezie bakoitza haren habitat naturalean kontserbatzeko neurriak hobestea, hortik kanpoko neurri osagarriak ezarriz, eta espezie migratzaileen babeslekuak babestea.
  - c) Hondatutako edo aldatutako habitatak leheneratzea eta habitat berriak sortzea, antzeko ezaugarriak dituzten beste habitatetan eragindako galerak konpentsatzeko betebeharra kontuan hartu gabe.
  - d) Lehentasuna ematea espezie eta subespezie endemikoei, banaketa-eremu oso mugatua dutenei, dentsitate edo iraunkortasun gutxiko populazioa dutenei eta migratzaileei.
  - e) Desagertu diren espezie basati autoktonoak berreskuratzea, baita Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartutako espezieak ere.
  - f) Autoktonoak ez diren espezie, subespezie edo arraza geografikoak modu orekatuan sartzeari eta ugaltzeari, eta ekintza horiek ekiditea, autoktonoekiko lehia sor dezaketen neurrian edota horien purutasun genetikoaren zein oreka ekologikoak aldatu ahal dituzten neurrian.



- g) Espezie exotikoen aurka egitea, prebentzioa sustatuz eta kontrolatzeko eta errotik kentzeko neurriak hartuz.
- h) Espezieen ugalketa eta natura-ondarearentzat funtsezkoak diren bestelako funtzioak babestea, polinizazioa kasu.

## *II. kapitulua. Espezieen tipologia*

### **70. artikulua Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatiak**

1. Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien Euskadiko Zerrenda sortzen da eta, Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien estatuko Zerrendan agertzen diren espezieez gain, balio zientifiko, ekologiko eta kulturalagatik, edo duten berezitasun, urritasun edo arrisku mailagatik arreta eta babes berezia behar duten espezieak barne hartzen ditu.
2. Zerrendak izaera administratiboa du eta natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren eskumenekoa da.
3. Zerrendak honako informazio hau eskaintzen du espezie bakoitzari buruz:
  - a) Izen zientifikoa, izen arruntak eta maila taxonomikoa.
  - b) Espezieak okupatzen duen lurralde-eremua.
  - c) Zerrendan sartu zeneko data.
  - d) Sartzeko, aldatzeko edo ateratzeko arrazoen justifikazio teknikoaren laburpena.
  - e) Kontserbazio-egoeraren aldizkako ebaluazioaren aipamena.
4. Espezie bat Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien Zerrendan sartzea, kategoriaz aldatzea edo ateratzea natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak agindu behar du, neurri hori justifikatzeko nahikoa informazio zientifiko dagoenean.
5. Prozedura honako hauek abiaraz dezakete:
  - a) Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, ofizioz.



- b) Edozein herritar edo erakundek, proposatutako neurria justifikatzen duen eskabide egokiaren bidez.
  - c) Foru Aldundietako organo eskudunek.
  - d) Ingurumeneko Aholku Batzordeak.
6. Ingurumeneko Aholku Batzordeak, hilabeteko epean, txosten bat egingo du natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak bidali dion espedientea oinarri hartuta.
7. Ebazteko eta argitaratzeko epea amaitu ondoren prozedura iraungitzat emango da, ofizioz abiarazi bada, eta ezetsitzat, 5. ataleko b), c) eta d) letretan aipatutakoek abiarazi badute.
8. Dekretu bidez garatzen dira espezie bat sartzeko, kategoriaz aldatzeko edo kentzeko prozedura eta dagokion eskabidearen gutxieneko edukia.

### 71. artikulua Espezie basati mehatxatuak

Lege honen ondoretarako, espezie basati mehatxatutzat hartzen dira Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden espezieak.

Katalogo hori Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien Euskadiko Zerrendan kokatutako erregistro publiko bat da.

1. Espezie basati mehatxatuak kategoria hauetan sailkatzen dira:
  - a) «Galzorian»: egungo egoera eragiten duten faktoreek berdin jarraitzen badute irauteko aukera gutxi duten espezieak.
  - b) «Kalteberak»: kalte egiten dieten faktoreak zuzendu ezean, berehalako etorkizunean aurreko kategoriara pasatzeko arriskua duten espezieak.
2. Espezie edo subespezie bat zein kategoriatan sailkatu behar den erabakitzeko, Autonomia Erkidegoko lurraldean, banaketa-eremu osoan zehar, espezie horrek bizi duen mehatxu-egoeraren faktore erabakigarriak hartuko dira kontuan, toki bakoitzean egoera arindu edo larriagotzen duten baldintzak existitu daitezkeela aintzat hartu gabe. Faktore horien artean klima-aldaketaren balizko ondorioak daude.
3. Katalogoak, katalogatutako espezie, subespezie edo populazio bakoitzeko, datu hauek eskaintzen ditu gutxienez:



- a) Izen zientifikoa eta izen arruntak.
  - b) Zein kategoriatan katalogatua dagoen.
  - c) Kaltetutako populazioaren tamainari, banaketa-eremu naturalari, berezko habitaten deskribapenari eta kontserbazio-egoerari eta espeziearen edo haren habitaten kontserbazioan eragina duten faktoreei buruzko datu esanguratsuenak.
  - d) Espeziea babesteko eta haren egoera hobetzeko beharrezkoak diren jarduketak.
  - e) Dagokion Kudeaketa Planaren aipamena, halakorik balego.
4. Espezie bat Espezie Mehatxatuen Katalogoan sartzea, kategoriaz aldatzea edo ateratzea natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak agindu behar du.
  5. Prozedura 60. artikuluko 5. apartatuan aipatutako pertsona edo instituzioek abiaraz dezakete eta beharrezkoa da jendaurreko informazioaren izapidea egitea, interesdunei entzunaldia ematea, eragiten dien foru- eta udal-administrazioak kontsultatzea eta Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen (Naturzaintzaren) txostena izatea.  
Ebazteko eta argitaratzeko epea amaitu ondoren prozedura iraungitzat emango da, ofizioz abiarazi bada, eta ezetsizat, aurreko artikuluko 5. apartatuko b), c) eta d) letretan aipatutakoek abiarazi badute.
  6. Dekretu bidez garatzen dira espezie bat sartzeko, kategoriaz aldatzeko edo kentzeko prozedura, dagokion eskabidearen gutxieneko edukia eta dagokion prozedura-arauak.

## 72. artikulua Espezie mehatxatuak babesteko neurriak

1. Espezie bat katalogatu ondoren, bi urteko epean eta foru-organo eskudunekin lankidetzan, natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren aginduz, kudeaketa-plan bat onartuko da. Plan horren helburua da espezieek dituzten mehatxuak ezabatzea, iraupena bermatzea, populazioen berreskurapena eta kontserbazioa sustatzea bai eta haien habitatak babestu eta mantentzea ere, kontserbazio-egoera onuragarri bat lortzeko.

Espezie batek baino gehiagok kontserbazio-arazo berak edo antzeko banaketa-eremu geografikoak izanez gero, plan bateratuak landu daitezke.



- Espezieren bat gune natural batean, eskusiboki edo proportzio handietan, kokatzen dela ziurtatuz gero, beharrezko kudeaketa-planak eta neurriak gune horien plangintza eta kudeaketarako planetan txertatu daitezke, eragiten dieten neurriak berariaz aipatuz.
2. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak kudeaketa-planak emateko lehentasunak ezarriko ditu, espezie batek edo haren banaketa-eremuak jasaten duen mehatxu mailaren ondorioz, lehentasunezko arreta behar badu.
  3. Kudeaketa-planek honako eduki hau izan behar dute gutxienez, dekretu bidez garatuko dena:
    - a) Mehatxu mailaren arabera, beharrezko gidalerro eta neurriak, existitzen diren mehatxuak deuseztatzeko, espezieen iraupena bermatzeko, ahal den heinean mehatxu-egoeraren kausak ezabatzeko, kontserbazio-egoera onuragarri bat lortzeko eta populazioen jarraipena egiteko.
    - b) Jarduketak egiteko eta, kasuaren arabera, babes zorrotza jasotzea edo lehentasunezko irizpideak ezartzea behar duten eremu kritikoak izendatzeko beharrezkoa den zonifikazioa.
    - c) Kasuaren arabera, planari jarraikiz erabilera, aprobetxamendu eta jardueri aplikatu beharreko mugak.
    - d) Planaren eraginkortasuna ebaluatzeko mekanismoak.
  4. Kudeaketa-planetan bertan zehaztuko da planen indarraldia.
  5. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak indarrean dauden kudeaketa-planen aplikazio bateratuari buruzko laburpen exekutibo bat argitaratuko du lau urtean behin.
  6. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-organo eskudunekin lankidetzan, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoko espezieen hazkuntza edo germoplasma-bankuak sustatuko ditu, natura-ingurunean berriro sartzeko gai izango diren aleak lortzeko.

### 73. artikulua Espezie autoktono desagertuak

1. Espezie autoktono desagertutzat hartzen da iraganean banaketa-eremu naturaletik desagertu zen espeziea.





2. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-organo eskudunekin lankidetzan, fauna eta flora basatiko espezie autoktono desagertuak haien eremuetan berriz sartzea sustatuko du, populazio horien bideragarritasunarentzako onuragarria denean eta euskal habitat naturalak berriz okupatzeko gai direnean.
3. Horretarako, natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak birsartze-planak ezarriko ditu, espezie kaltetuak eta birsartzea gauzatzeko neurriak zein diren zehazten dutenak. Planaren xede diren espezie edo subespezieek, dagokien Planaren aplikazioak irauten duen bitartean, «galzorian» kategorian katalogatuta dauden espezieen babeserako ezarritako neurri berak izango dituzte.

#### 74. artikulua Espezie exotiko inbaditzaileak

1. Lege honen ondoretarako, espezie exotiko inbaditzailetzat hartzen dira ekosistema edo habitat natural edo erdi naturaletan sartu edo ezarri direnak eta jatorrizko aniztasun biologikoarentzat aldaketa edo mehatxu bat dakartenak, portaera inbaditzailearen edo kontaminazio genetikorako arriskuaren ondorioz.
2. Espezie Exotiko Inbaditzaileen Euskal Katalogoa sortzen da, Europa eta Espainiako katalogoen kalterik gabe.
3. Espezie bat Katalogoan sartzea edo ateratzea natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren agindu bidez egingo da.
4. Katalogoan sar daitezke Autonomia Erkidegoarentzako kezkarritzat jotzen diren espezie exotiko inbaditzaileak, baldin eta, froga zientifikoak oinarri hartuta, ingurumenean asko hedatzen ari direla eta errotik kentzeko premiazko neurriak behar direla erabakitzen bada.
5. Espezie bat Katalogoan sartzean, debekatu egiten da espezie hori edukitzea, landatzea edo haztea, eta baita ale bizien, hondakinen edo bizirik atera edo ugaltu daitezkeen propaguluena trafikoa eta salerosketa ere.

Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak aurreko debeku hori kautelazko neurri gisa har dezake, Katalogoan sartzeko prozedura hasi aurretik. Era berean, espeziea hedatzea saihesteko edo errotik kentzeko behin-behineko neurriak har ditzake.



74. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aurreko debekua baliogabetu daiteke, natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak hala baimenduz gero, ikerketarako, pertsonen osasuna eta segurtasuna bermatzeko, edo kontrolatu edo errotik kendu ahal izateko beharrezkoa denean.
6. Espezie bat katalogoan sartu ondoren, urtebeteko epean, lehentasunezko ekintzetarako eremuak eta neurriak zehazten dituen erauzte-plan bat onartu beharko da. Neurri hauek nahitaezkoak dira espezie horiek dauzkaten edo espeziearen gain eskubideren bat duten pertsonentzat.
  7. Erauzte-planek edo, kasuaren arabera, kautelazko neurri gisa hartutako planek exijitzen dituzten neurriek ez dakarte kalte-ordain bat jasotzeko eskubiderik, betebeharrak horietatik eratorritako gastuei aurre egiteko laguntzak onar badaitezke ere.



### **III. kapitulua. Debekuak eta salbuespenak**

#### **75. artikulua Basafaunako espezieei dagozkien debeku orokorrak**

1. Ziklo biologikoaren fasea edo erabilitako metodoa kontuan izan gabe, debekatu egiten da basafaunako espezieekin honako hau egitea:
  - a) Berariaz hiltzea, min ematea, gogaitzea edo urduritzea.
  - b) Bizirik atxikitzea eta atzematea.
  - c) Haien habiak, kumeak edo arrautzak suntsitzea, hondatzea, biltzea eta atxikitzea, arrautzak hutsak badaude ere.
  - d) Ale bizien, hilen edo hondakinen jabetza, garraioa, trafikoa eta salerosketa, kanpo-merkataritza barne.
2. Europar Batasuneko araudiaren kalterik gabe, aurreko atalean ezarritako debekuak ezingo dira aplikatu mendien, nekazaritzaren, ehizaren eta arrantza kontinentalaren edo itsas-arrantzaren legerian berariaz araututa dauden kasuetan.

#### **76. artikulua Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien Euskal Zerrendan sartutako espezieei ezartzen zaizkien debekuak.**

1. Ziklo biologikoaren fasea kontuan izan gabe, debekatu egiten da basafaunako espezieekin honako hau egitea:
  - a) Berariaz hiltzea edo atzematea.
  - b) Berariaz habiak eta arrautzak suntsitzea edo hondatzea eta habiak kentzea.
  - c) Arrautzak naturan biltzea eta atxikitzea, hutsak egonda ere.
  - d) Errute-eremuak suntsitzea, hondatzea edo aldatzea.
  - e) Berariaz segika ibiltzea edo gogaitzea, bereziki ugaltze- eta hazkuntza-garai desberdinetan eta hibernazio- eta migrazio-garaietan, baita atxikitzea ere.
  - f) Ugaltzeko edo atseden hartzeko eremuak hondatzea edo suntsitzea.



- g) Ale biziak, hilak edo hondakinak edukitzea, garraiatzea, salerostea (kanpo-merkataritza barne), trukatzea eta saltzeko edo trukatzeko helburuarekin eskaintzea, baita salgai jartzea eta jendaurrean erakustea ere.
  - h) Nahitaezko baimena izan gabe espezie edo subespezieak sartzea, birsartzea edo indartzea.
2. Ziklo biologikoaren fasea kontuan izan gabe, debekatu egiten da basafiorako espezieekin honako hau egitea:
- a) Berariaz naturan biltzea, moztea, mutilatzea, errotik ateratzea edo suntsitzea, edo hondatzea eragin dezaketen ekintzak egitea.
  - b) Ale biziak edo hilak eta haien propagulu edo hondakinak edukitzea, naturalizatzea, garraiatzea, saltzea, salerosi edo trukatzea, saltzeko edo trukatzeko helburuarekin eskaintzea, inportatu edo esportatzea.
  - c) Aprobetxa daitezkeen espezieak biltzea jarduera hori arautzen duen araudia bete gabe.
3. Foru-organo eskudunek ustekabeko atzemateak, hilketak edo suntsipenak kontrolatzeko sistema bat ezarriko dute, gertaera horiek ez dezaten ondorio negatibo garrantzitsurik izan Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien Euskal Zerrendan edo mehatxatuen zerrendan dauden espezieengan.
- Jasotako informazioa natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinaraziko zaio.
4. Ezohiko inguruabar meteorologiko, biologiko edo ekologikoen ondorioz, naturalak edo gizakiaren ekintzek eragindakoak badira ere, fauna eta flora basatiari kalteak edo arrisku larriko egoerak eragiten bazaizkio, foru-organo eskudunek arrisku hori ekiditera edo gutxitzera, kaltea arintzera edo kaltetutako baliabide naturalak berrezartzera bideratutako neurriak har ditzakete.
5. Natura-inguruneko erabilera edo aprobetxamenduen titular direnek eta, orokorrean, basafaunako ale zaurituak edo hilak existitzen direla dakiten pertsonak egoera horren berri eman beharko diete foru-organo eskudunei edo natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, bereziki, ustez basa-espezieak pozoitu direnean edo kalte egin zaienean.

## 77. artikulua Salbuespenak



1. Ez balego beste konponbide egokirik eta, beti ere, fauna edo flora basatiko espezieen populazioak haien banaketa-eremu naturalean egoera onuragarri batean mantenduz gero, foru-organo eskudunek, berariazko baimen baten bidez, salbuespen bereziak ezar ditzakete 65 eta 66 artikuluetan aipatutako debekuei dagokienez, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:
  - a) Debekuak aplikatzeak pertsonen osasun eta segurtasunean ondorio kaltegarriak eragiten baditu.
  - b) Laboreei, abereei, basoei, arrantzari eta uraren kalitateari kalte larriak eragitea prebenitzeko. Basa-hegaztien kasuan izan ezik, salbuespen hau beste ondasun mota batzuek kalte larria jasaten dutenean ere aplikatu daiteke.
  - c) Garrantzi goreneko interes publikoko arrazoi premiatsuen ondorioz, arrazoi sozioekonomikoak eta ingurumenarentzat berebiziko garrantzia duten ondorio onuragarriak barne. Salbuespen hori ez da hegaztien kasuan aplikatzen.
  - d) Ikerketa, hezkuntza, birpopulaketa edo birsartzearekin lotutako arrazoiengatik ezinbestekoa denean, edo helburu horiekin itxian hazteko behar denean.
  - e) Hegazti basatien kasuan, aire segurtasunarekin lotutako istripuak prebenitzeko.
  - f) Hertsiki kontrolatutako baldintzetan eta aukeraketa-metodoen bidez, Babes Bereziako Erregimenean dauden Espezie Basatien Euskal Zerrendan sartuta ez dauden zenbait espezie atzematea, atxikitzea edo beste modu batera zuhurki ustiatzea onartzeko, kopuru txikietan eta kontserbazioa bermatzeko beharrezko mugekin.
  - g) Fauna eta flora basatiak eta habitat naturalak babesteko.

## **78. artikulua Salbuespenak baimentzeko betekizunak eta prozedura**

1. Aurreko artikulua aipatzen duen baimen administratiboa arrazoitua egon behar da, honako alderdi hauek zehaztuz:
  - a) Aplikatu nahi den salbuespenaren helburua edo arrazoia.
  - b) Kontuan hartu diren beste konponbideak eta egokiak ez direla erabakitzeko arrazoiak.



- c) Zein espezieri egiten dion erreferentzia.
  - d) Erabili beharreko baliabideak edo metodoak eta haien mugak, baita langile kualifikatuak ere.
  - e) Arrisku-egoerak, denbora eta tokia eta egingo diren kontrolak.
2. Aurreko artikuluko 1.b) eta 1.c) apartatuen azken tartekian aurreikusten den kasuan, foru-organo eskudunek biodibertsitatearen galera garbirik ez gertatzea bermatzeko neurriak zehaztu beharko dituzte.
- Aurreko artikuluko 1.d) apartatuan aurreikusten dena aplika daiteke, esperimentuetarako eta beste helburu zientifikoekin erabiltzen diren animalien babesarekin zerikusia duten xedapenak errespetatuz.
3. Baimena ebazteko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa da.
- Epe hori amaitzean ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, interesdunek haien eskaria ezetsi egin dela ulertu dezakete.
- Prozedura ofizioz abiaraziz gero, ebazpenik eta jakinarazpenik jaso ezean eskariak iraungi egingo dira.
4. Dagokion ebazpena osorik argitaratu behar da, eta natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinarazi behar zaio.
5. Baiespen-baimen baten kontra administrazio-errekurtso bat jarriz gero, baimena bertan behera geldituko da errekurtsua espresuki ebatzi arte.
6. Foru-organo eskudunek aurreko urte naturalean zehar baimendutako salbuespenen zerrenda argitaratuko dute haien interneteko atarietan.



#### IV. kapitulua. Babeserako neurri gehigarriak

##### 79. artikulua Espezieen babesa ehiza eta arrantzari dagokionez

1. Eusko Jaurlaritzak zehaztutako espezieak bakarrik ehizatu edo ur kontinentaletan arrantzatu ahal izango dira, eta horrek ezingo die eragin Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezieen Euskal Zerrendan edo Europar Batasuneko arauetan sartuta dauden espezieei.

Ehiza-aprobetxamenduaren xede diren espezieen zerrenda ezin da debekualdiei buruzko foru-aginduen bidez luzatu.

2. Ehiza eta arrantza kontinentalak jarduera horietarako baimendutako espezieen kontserbazioa eta sustapena bermatu beharko dituzte eta, beraz, jarduera horietarako erabil daitezken lur eta uretan egin beharko da ehizan edo arrantzan, espezie bakoitzarentzat ezarritako garaietan.
3. Debekatuta dago hegaztiak araldi-, ugalketa- eta umatze-garaietan ehizatzea eta, hegazti migratzaileen kasuan, baita umatze-eremuetara itzultzeko ibilbidean ehizatzea ere.

Lurralde Historikoek nork bere aginduetan, modu koordinatuan eta informazio zientifiko egokiaren arabera, hegazti basatiak ehizatzeke debekualdi bakarra ezartzen dute, aintzat hartuz, bereziki, migrazioa hasten lehenak diren horiek.

Era berean, hegazti basatien ehiza garaia hasteko datak kontuan hartu behar ditu, informazio zientifiko egokiaren arabera, txitak umatzen azkenak diren espezieak.

4. Debekatuta dago animaliak andanaka edota bereizketarik egin gabe harrapatu nahiz hiltzeko bitartekoak edukitzea, erabiltzea eta merkaturatzea; ehizarako garraibideak, bereziki Ehizaren Legean (martxoaren 17ko 2/2011) aipatutakoak, erabiltzea; baita toki batean espezie baten populazioa desagertzea edo haren lasaitasuna nabarmen asaldatzea eragin dezaketen prozedurez baliatzea ere.
5. Bizirik ala hilik merkaturatu daitezken bakarrak, Nazioarteko Hitzarmenetan eta Europar Batasuneko araudian ezarritako baldintzen arabera zehaztutako espezieak dira.
6. Beste konponbide egokiagorik egon ezean, 4. ataleko debekua salbuetsi daiteke, aurrez baimena jasota, honako baldintza hauek betetzen badira:



- a) 74. artikuluko a), b), d), e) eta g) letretan aipatutako inguruabar eta baldintzak aldi berean gertatzea eta,
  - b) Europar Batasunaren araudian babes zorrotzekoak ez diren Batasunaren intereseko animalia-espezieak izatea.
7. Baimenak 68. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar ditu.

### **80. artikulua Basafauna oneratzeko zentroak eta germoplasma-bankuak**

1. Foru-organo eskudunen baitan basafauna oneratzeko zentroak sortu dira, berezko ingurunean bizirik irauteko ezindurik dauden animaliak zaintzeko, mantentzeko eta sendatzeko helburuarekin, horrela, ingurune naturalera itzuli ahal daitezen.
2. Helburu horren mendean, basafauna oneratzeko zentroak eta, kasuaren arabera, sendatzen ari diren basafaunako aleak ikerkuntzarako eta jendea sentsibilizatzeko erabili ahal izango dira.
3. Basafauna oneratzeko zentroak Lurralde Historiko bakoitzean basafaunako aleak hilik agertzearen kausak ikertzeaz arduratuko dira.
4. Aurreko ataletan aipatutakoaren harira, foru-organo eskudunek lankidetzahitzarmenak egin ditzakete basafaunako espezieak babesteko egiten duten lanagatik ezagunak diren erakundeekin; adibidez, Euskal Herriko Unibertsitatearekin.
5. Germoplasma-bankuak Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden espezieen, eta bereziki, espezie bakanen, endemikoen edota mehatxatuen haziak eta propaguluak biltzeko, tratatzeko eta kontserbatzeko helburua duten zentroak dira. Germoplasma-bankuetan bildutako materiala behar adina denboran zehar mantendu edo berriz natura-ingurunean sartu ahal izateko moduan kontserbatu eta kudeatuko da, espezieen kontserbazioa bermatzeko.
6. Basafauna oneratzeko zentroen araubidea dekretu bidez ezarriko da.

### **81. artikulua Basafaunako espezieak itxian haztea**

1. Basafaunako espezieak itxian hazteko foru-organo eskudunaren baimena behar da.





2. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak Autonomia Erkidego osoko ekosistemetan ondorio kaltegarriak eragin ditzaketen espezie basatiak haztea eta edukitzea debekatzeko edo baldintzatzeko ahalmena du.
3. Debekatuta dago babes bereziko erregimenean edo katalogatuta dauden basa-espezieen aleak erabiltzea ale hibridoak edo genetikoki aldatutako aleak lortzeko.
4. Basafaunako espezieak itxian hazteko baimen baten jabe direnak izango dira ale horiek eragin ditzaketen kalteen erantzule.
5. Hazkuntzarekin, basafaunako aleen bizi-baldintzekin eta nahi gabe natura-ingurunean askatzea ekiditeko neurriekin zerikusia duten arau orokorrak dekretu bidez onartuko dira.

## 82. artikulua Espezieak sartzea, birsartzea edo indartzea

1. Espezieak natura-ingurunean askatu ahal izateko foru-organo eskudunaren baimena izan behar da, lege honen eta Natura Ondarea Babesteko Euskal Estrategiaren garapen arauari jarraikiz.
2. Baimena jasotzeko prozedura ekimen pribatu edo publiko bidez abiaraz daiteke, eta espezieak askatzeak honako hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du sustatzaileak:
  - a) Ez duela eraginik xede-eremuaren aniztasun genetikoan.
  - b) Bateragarria dela katalogatutako espezieekin lotutako planekin edo, kasuaren arabera, xede-eremuan ehiza eta arrantzarako dauden antolamendu-planekin.
3. Espezie edo subespezie horiek autoktonoak ez direnean, baimena jasotzeko ezinbestekoa da kontrolatzeko gaitasunaren nahikoa berme izatea, ez daitezen lurraldean zehar hedatu. Bestalde, subespezie edo arraza geografiko autoktonoekiko lehia biologikoa sortzeko arriskurik ez dagoela ziurtatu beharko da, haien kontserbazio-egoera, populazioen bideragarritasuna edo, kasuaren arabera, aprobetxamendua arriskuan ez jartzeko.
4. Ebazteko eta argitaratzeko epea amaitu ondoren, prozedura ezetsizat emango da.



5. Birsartzea partikular baten ekimenaren edo interesen ondorio bada, sustatzailea izango da birsartutako aleek eragin ditzaketen kalteen erantzule.

### 83. artikulua Material genetikoaren bankuen erregistroa

1. Autonomia Erkidegoko Espezie Basatien Material Genetikoaren Bankuen Erregistroa sortzen da, natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren baitan, Autonomia Erkidegoko fauna eta flora basatiaren material genetikoaren bilduma zientifikoei buruzko informazio eguneratua jasotzeko.

Dekretu bidez zehazten da erregistroaren araubidea, jarduna, inskripzioa, mantentzea eta edukirako sarbidea.

2. Bankuen titularrek garrantzizko nahitaez eman behar diote informazioaren berri erregistroari, Lege hau garatzeko arauetan xedatutakoaren arabera.

### 84. artikulua Taxidermia

1. Basafaunako espezieekin taxidermia egiteko foru-organo eskudunaren baimena behar da.

Espezie katalogatuen eta, autoktonoak ez izanda ere, nazioarteko hitzarmenen edo Europar Batasuneko araudiaren bidez babestuta daudenen kasuan, diseatzeko baimena hezkuntza- edo ikerkuntza-erakundeei soilik ematen zaie, ekintza hori arrazoitzen duen txostena aurkeztu ondoren.

2. Taxidermia-tailerrek edo jarduera hori egiten duten pertsonak erregistro-liburu bat izan behar dute, jardueran erabiliko diren animalien jatorriaren datuak gordeko dituenak.
3. Foru-organo eskudunek diseatzeko baimena eman dezake berez hil diren edo zaurituta zeudelako hil behar izan diren animalien kasuan, bidezko diren bestelako administrazio-ekintzak edo ekintza penalak badaude ere; eta, bidezko denean, gorpuzkiak bahitu ditzakete.
4. Taxidermia dekretu bidez arautzen da.



## 85. artikulua Aprobetxamenduak

1. Onddo, basafruitu, egur, goroldio, liken eta sendabelar nahiz landare aromatikoak merkataritza-helburuetarako erabiltzea eskumena duten foru-organoek arautu beharreko aprobetxamendua da.
2. Aprobetxamendu horrek ezingo du, inolaz ere, eraginik izan Babes Bereziko Erregimenean dauden Espezie Basatien Euskal Zerrendan edo Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartutako espezieengan.
3. Aprobetxamendurako ez da baimen administratiborik behar. Dena den, foru-administrazioak erabakiko du, aprobetxamendu bakoitzaren kasuan, norbere kontsumorako gehieneko kopurua.
4. Aurreko atalean ezarritakoari jarraikiz, babestutako naturaguneetan, artikulua honetan aipatutako aprobetxamenduak dagokien araudiko xedapenen mende egongo dira. Arau horiek eskusio-eremuak ezar ditzakete, espezie babestu edo mehatxatuak direla eta.



## VI. TITULUA. NATURA ONDAREA KONTSERBATZEKO SUSTAPEN-, EKONOMIA- ETA FINANTZA-NEURRIAK

### 86. artikulua Natura-ondarea kontserbatzeko finantza-iturriak

1. Naturagune babestuen plangintza, antolamendua, babesa, erabilera eta kudeaketa behar bezala egitea bermatuko duten finantza-iturriak, besteak beste, honako hauek izango dira:
  - a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan lortutako zuzkidurak, honako xede hauetara bideratuko direnak: Naturagune Babestuen Sarearen ikerketa, koordinazioa eta hedapena; Urdaibai Biosfera Erreserbaren kudeaketa; eta naturaren ezagutzaren sustapena.
  - b) Foru-organo eskudunek emandako zuzkidurak, naturagune babestuen kudeaketarako.
  - c) Beste administrazio publikoetatik jasotako baliabideak.
  - d) Europako funtsetatik natura kontserbatzeko programentzako jaso daitezkeen baliabideak.
  - e) Pertsona fisiko edo juridikoen ekarpen edo dohaintzak.
2. Euskal administrazio publikoek beren eskumenen eremuan edozein motatako lankidetzak hitzarmenak egin ditzakete lege hau betetzea bermatzeko helburuarekin.
3. Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak, Lurralde Historikoetako Foru Aldundiek eta beste administrazioek laguntza teknikoak edo diru-laguntzak ezar ditzakete lege honen helburuak lortu ahal izateko.

### 87. artikulua Eragin sozioekonomikoko esparruak

1. Naturagune babestuen mantentze-lanei ekarpena egiteko eta kaltetutako herrien garapen sozioekonomikoa sustatzeko helburuarekin, eragin sozioekonomikoko esparruak ezarriko dira, naturagune babestu baten eta, halakorik balego, hura babesteko eremu periferikoaren kokaleku diren udal-mugarteek osatuko dituztenak.



Esparru horiek beste udalerrri mugakideetara zabaldu daitezke, aurrez aipatutakoekin lurralde edo ekonomia unitate bat osatzen badute eta gomendagarria bada.

2. Eragin sozioekonomikoko esparruetarako, administrazio publiko eskudunek hurrengo artikuluan aipatuko diren jarduketa-programak egin ditzakete.

### **88. artikulua Garapen sozioekonomikorako programak**

1. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan eta Ingurumeneko Aholku Batzordearen txostena izan ondoren, aurrekontuetako ahalbideen barruan, naturagune babestuaren eta hura babesteko eremu periferikoaren lurralde-eremuan sartuta dauden herrien garapen sozioekonomikorako programak ezarriko dituzte, beharrezko diru-laguntzak eta pizgarriak aurreikusiz.
2. Programa horien helburuak hauek dira:
  - a) Azpiegiturak sortzea eta zerbitzu- eta hornidura-maila egokiak lortzea.
  - b) Natura-ondarea kontserbatzeko eskakizunekin bateragarriak diren jarduera sozioekonomikoak babestu eta sustatzea, beharrezkoak diren ordainen bidez.
  - c) Bertako biztanleek naturagune babestuaren babesak eta kudeaketak eragindako jardueretan parte hartzea.
  - d) Landako etxebizitzak birgaitzea eta ondare arkitektonikoa kontserbatzea.
  - e) Naturagune babestuaren helburuekin lotutako kultura, zientzia, pedagogia eta aisialdiko ekimenak suspertzea.
3. Toki-erakunde baten lurralde-eremua, osoa edo zati bat, naturagune babesturen batean sartuta egonez gero, lehentasuna izango du gune horiek kudeatzeko eman beharreko zerbitzuen emakida esleitzean.

### **89. artikulua Kalte-ordainen araubidea**

Jabetza pribaturik edo legezko ondare-eskubide eta -interesik kentzen bada, kentzeko modua zein izan den kontuan izan gabe, beti ere, haien erabilera



tradizional eta finkatuekin bateragarria izanez gero, titularrek eskubidea izango dute dagokien kalte-ordaina jasotzeko.

Araubide hau erregelamenduen garapenaren arabera izango da.

## **90. artikulua Lurraldearen zaintza eta natura-ondarearen babesa sustatzea**

1. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, natura-ondarea kontserbatzeko lurraldearen zaintza sustatuko dute, zaintza- edo kontserbazio-erakundeen eta lur-jabeen arteko akordioen bidez. Akordio horien helburu nagusia natura-ondarea kontserbatzea da honako hauek barne hartuta: habitat berriak sortzea, narriatutakoak leheneratzea, polinizazioa eta antzeko oinarrizko prozesu ekologikoak sustatzea, karbono-hustubideak areagotzea eta, orokorrean, ondare horren galera garbia saihesteko neurriak ezartzea.
2. Euskal administrazio publikoek, naturagune babestuetan kokatutako lursailen edo natura-ondarea babesteko erabilgarriak izan daitezkeen lurren jabeak direnean, akordioak egin ditzakete haien kudeaketa eta kontserbazio osoa edo zati bat lurraldearen zaintzarako edo kontserbaziorako erakundeei lagatzeko. Erakunde horien aukeraketa publizitate-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta lehia-printzipioen arabera egingo da.
3. Kudeaketa lagatzeko akordioak idatziz ezarriko dira, urte anitzeko administrazio-hitzarmen gisa, haren garapenerako finantza-sistema eta kudeaketarako jarduketak xedatuz.
4. Kudeaketa lagatzeko akordioek iraupen mugatu bat dute, lau urte baino gehiagokoak izan daitezke eta aldian-aldian berritzeko aukera dago.

## **91. artikulua Jabe pribatuekin akordioak natura-ondarea babesteko**

1. Euskal administrazio publikoek lur-jabeekin edo bestelako eskubideen titularrekin akordioak egin ditzakete Lege honen helburuak sustatzeko.
2. Akordioak Lege honetan edo lege hau garatzeko arauetan exijitzen diren betebeharez gain beste batzuk ezartzen baditu, edo zenbait aprobetxamenduri borondatez uko egitea badakar, ordainak edo diru-laguntzak ezar ditzake, bereziki, dekretu bidez garatuko diren honako irizpide hauen arabera:
  - a) Kaltetutako lurraldearen hedadura.



- b) Kaltetutako habitat eta espezieen kontserbazio-egoera, eremuan azken bost urteetan egin diren jarduerak direla eta.
  - c) Betetze-maila hitzarmenaren hasieran zegoenarekin alderatuz eta kontuan izanik erabileren murrizketa-maila eta kontserbazio-neurrien ezarpena.
  - d) Neurriak gauzatzeko urtebeteko edo bestelako epeak.
- Diru-laguntzak edo ordainak akordioan ezarritako urteko edo bestelako epearen amaieran ezar daitezke, egindako hobekuntzak behar bezala egiaztatu ondoren.
- 3. Akordio horien xede diren lursailen jabeek bertan sartzeko baimena emango diete natura-ondarearen alorrean eskumena duen saileko edo foru-organo eskudunetako funtzionario ikuskatzaileei, hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko.
  - 4. Akordioak aurreko artikulua 4. apartatuan xedatutakoaren arabera izango dira.
  - 5. Eusko Jaurlaritzak Natura Kontserbatzeko Bankuen sorrera sustatuko du. Horiek pribatuak, publikoak edo publiko-pribatuak izan daitezke, eta ingurumen-inpaktuak konpentsatzeko eta lur-zaintzarako proiektuak garatzea bultzatzeko helburua izango dute. Banku horien ezaugarriak eta arauketa araudi bidez garatuko dira.

## 92. artikulua Zerga-neurriak

Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, zerga- eta finantza-neurriak ezar ditzakete lege honen helburuak lortzea sustatzeko, honako jarduketan hauen bidez:

- a) Tributuak, tasak eta bestelako tresna fiskalak sortzea, natura-ondarea galtzea edo hondatzea eragiten duten jarduerak zergapetzeko.
- b) Murrizketak, hobariak edo salbuespenak ezartzea natura-ondarea kontserbatu eta leheneratzeko ekintzak sustatzen dituzten borondatezko jarduerari, bereziki zaintza-jarduerari, eta bestalde, eskubide errealak eskualdatu edo emateari, dohaintzei, legatuei eta ekarpenei, helburutzat lege honen xedeak betetzea badute eta legezko betebeharretatik haratago badoaz.



### 93. artikulua Natura Ondarea Kontserbatzeko Euskal Funts Publikoa

1. Natura Ondarea Kontserbatzeko Euskal Funts Publikoa sortzen da.
2. Funtsa Eusko Jaurlaritzari atxikita dago, publikoa da eta iturri hauetatik elikatzen da:
  - a) Xede horretarako Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan berariaz ezarritako ekarpenak.
  - b) Ehizatzeke gaitasunaren azterketa egiteagatik kobratutako tasak.
  - c) Araudiaren arabera Funtsari esleitzen zaizkion legezko tasak, tributuak eta bestelako tresna fiskalak.
  - d) Lege honi jarraikiz ezartzen diren zehapenak, kalte-ordainak eta hertsapen-isunak.
  - e) Natura-ondarea babesteko Europar Batasunetik datozen ekarpenak.
  - f) Dohaintzen bidez egindako ekarpen pribatuak.
3. Kutsatzen duenak ordaintzen duela eta hondatzen edo suntsitzen duenak leheneratzen edo, beste konponbiderik ezean, konpentsatzen duela dioen printzipioaren eta ingurumen erantzukizunari buruzko xedapenen kalterik gabe, Funtsak helburu hauetarako balio dezake:
  - a) Habitat naturalen, ondare geologikoaren eta flora eta fauna basatiko espezieen kontserbazio-egoera mantendu edo hobetzea, mehatxatuak daudenen kasuan, bereziki.
  - b) Igarobide ekologikoak eta azpiegitura berdeak ezartzea, espezie basatiak aske ibili eta migratu ahal izatea eta prozesu naturalak sustatzea bermatzeko neurriak hartzea.
  - c) Espezie exotiko inbaditzaileen aurkako borroka.
  - d) Natura-ondarea klima-aldaketara egokitzea.
  - e) Natura-ondarea babesteko heziketa sustatzea.
  - f) Lurralde Historikoek eta udalerriek beren eskumenen esparruan gauzatu ditzaketen jarduketak babestea.
4. Funtsa arautzen duen araudia dekretu bidez garatuko da.
5. Ondare naturalaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak Funtsaren aplikazioari buruzko laburpen bat argitaratuko du lau urtean behin.





6. Lurralde Historikoek eta udalerriek, beren eskumenen esparruan, Funts propioak sor ditzakete, natura-ondarea babesteko helburuarekin.

## VII. TITULUA. IKUSKARITZA ETA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

### *I. Kapitula. Ikuskaritza*

#### 94. artikulua Ikuskatzaileak

1. Lege hau betetzen dela bermatzeko ikuskaritza honako hauek egingo dute:
  - a) Foru Aldundietako edo beste toki-administrazioetako langileak, ingurumeneko edo basozaintzakoa agenteen funtzioez arduratzen direnak.
  - b) Ertzaintza edo Udaltzaingoetako agenteak, haien legeria espezifikoak agindutakoaren arabera.
  - c) Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak funtzio horiek betetzeko izendatutako langileak.
2. Lege honen ondoretarako, aurreko atalean aipatutako funtzionarioak agintaritza-agenteak dira.

#### 95. artikulua Funtzioak

1. Aurreko artikuluan aipatutako agenteek nahitaez salatu behar dituzte arau-haustek, jakinaren gainean egonez gero.  
Egiaztatzen dituzten egitateek, legez behar diren betekizunak dituen agiri publikoan jasotzen badira, froga-balioa izango dute, pertsona interesdunek, beren eskubideak edo interesak defendatzeko aurkez ditzaketen frogen kalterik gabe.
2. Ikuskaritzaren xede diren pertsonak behartuta daude aurreko artikuluan aipatutako agenteei behar duten laguntza eskaintzera eta honako jarduketa hauek egiten uztera:
  - a) Identifikatu ondoren Lege honen mende dauden jarduerak edo ekintzak garatzeko erabiltzen diren instalazio edo lekuetan sartzea eta



- beharrezkotzat hartzen dituzten egiaztapenak egitea, baita arau-hauste administratiboak edo, kasuaren arabera, penalak egiteko erabil daitezkeen material, elementu edo instrumentuekin zerikusia duten egiaztapenak ere.
- b) Ikuskaritzaren xede diren pertsonen informazioa eskatzea.
  - c) Lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren jarduketak egiteko erabili diren edo erabil daitezkeen baliabideak edo legez kontrako produktu edo aleak konfiskatzea.
3. Aurreko atalean zehaztutakoaz gain, agenteek kautelazko neurriak har ditzakete zehapen-prozedura hasi aurretik, ustez arauak hausten dituzten egitateen edo antzeko beste batzuen jarraipena edo errepikapena saihesteko, eragin dituzten kalteak mantentzea saihesteko edo arintzeko, edo frogak ez suntsitzeko. Neurri horiek hartzen direnetik hamabost egun igaro ondoren iraungi egingo dira, dagokion zehapen-prozedura hasi ezean.
  4. Ikuskaritzetan zehar arau-hauste administratibo bat egiteko erabili ahal izan diren gauzak atzemanaz gero, jasota geratu behar da dagokion aktan eta pertsona interesdunak sinatu behar du. Sinatzeari uko egingo balio, inguruabar hori aktan adierazi behar da.

## 96. artikulua Administrazioaren erantzukizuna

1. Lege honetan ezarritakoa hausten duten ekintza nahiz ez-egiteek administrazioaren erantzukizuna sortuko dute, bide penaletik, zibiletik edota besteren batetik eska daitekeen erantzukizunaren kalterik gabe.
2. Zehatzeko ahala otsailaren 20ko 2/1998 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalaria buruzkoa) arabera gauzatuko da.

## 97. artikulua Arau-hausteen tipifikazioa

1. Natura Ondarea eta Biodibertsitateari buruzko Legean (abenduaren 13ko 42/2007) tipifikatutako arau-hausteak errespetatuz, Lege honen arabera honela sailkatzen dira arau-hauste administratiboak:
  - a) Oso astunak



- 1) Pertsonak edo ondasunak lekualdatzeko edozein motatako ibilgailu motordunak edo mugitzeko halakoen beharra dutenak naturagune babestu batean aparkatzea baimendutako lekuetatik kanpo, bertako baldintzak aldatu eta bertako balioei kalte eginez gero.
  - 2) Naturagune babestu batean ibilgailu motordunekin baimendutako bideetatik eta kasuetatik kanpo ibiltzea, bizigarritasun-baldintzak aldatu eta bertako balioei kalte eginez gero.
  - 3) Naturagune babestu batean baimendu gabeko erauzketa- nahiz industria-jarduerak egitea.
  - 4) Naturagune babestu batean hondakinak kontrolik gabe isurtzea.
  - 5) Sua erabiltzea naturagune babestu bateko baldintza naturalak, habitatak, espezieak edo ekosistema-funtzioak suntsitu edo aldatzeko helburuarekin.
  - 6) Natura-ingurunearen errealitate fisiko eta biologikoa eraldatzeko ekintzak egitea, Lege honen 20. artikuluan aipatutako baimena, lizentzia edo emakida jaso gabe.
  - 7) Natura-ingurunean espezieak sartzea, birsartzea edo populazioak indartzea administrazioaren baimenik gabe, bateraezina bada katalogatutako espezieei dagozkien planekin edo ez bada egokitzen ehiza eta arrantzarako existitzen diren antolamendu-planetara, eta espezie edo taxon baten aniztasun genetikoari kalte egiten badio.
  - 8) Baimenik gabe natura-monumentu deklaraturako zuhaitzak moztea edo bestelako ekintza baten bidez zuhaitzak hiltzea edo nabarmen hondatzea.
  - 9) Naturagune babestu batean sua erabiltzea, berariaz baimendutako toki edo kasuetatik kanpo.
- b) Astunak
- 1) Pertsonak edo ondasunak garraiatzeko edozein motatako ibilgailu motordunak edo mugitzeko halakoen beharra dutenak naturagune babestu batean aparkatzea baimendutako lekuetatik kanpo, bertako ingurumen-balioak arriskuan jarriz gero.
  - 2) Produktu kimikoak edo substantzia biologikoak baimenik gabe erabiltzea edo hondakinak isurtzea naturagune babestu batean, bizigarritasun-baldintzak aldatzen badira.



- 3) Naturagune babestu bateko elementuetan inskripzio, seinale, zeinu eta marrazkiak egitea.
- 4) Naturagune babestu batean ibilgailu motordunak baimendutako bide eta kasuetatik kanpo ibiltzea.
- 5) Naturagune babestu bateko erabileren antolamendu-araudiari jarraitu gabe azpiegiturak jartzeko obrak egitea.
- 6) Naturagune babestu bat zaintzeaz arduratzen diren langileen edo Lege honek ezarritakoari jarraikiz ikuskaritzak egiteaz arduratzen direnen jardunari behin eta berriz aurka egitea.
- 7) Lege honek aipatutako emakidek eta baimen administratiboek ezarritako baldintzak ez betetzea, horien iraungitzearen, baliogabetzearen edo etetearen kalterik gabe.
- 8) Naturagune babestu batean zaborra, txatarra edo bestelako hondakinak metatzea, bertako osagai naturalei edo paisaiei kalte egiten badio.
- 9) Espezie basatiak biltzea merkaturatzeko helburuarekin, haien aprobetxamendua ez badago baimendua.
- 10) Naturagune babestu bateko eremuetan ornogabe, onddo, basafritu, egur, goroldio, liken edota sendabelar eta landare aromatikoak biltzea, jarduera hori debekatua badago.
- 11) Natura-ingurunean espezieak sartzea, birsartzea edo populazioak indartzea, baimen administratiborik gabe.
- 12) Basafaunako edozein espezieko animalien arteko borroka antolatzea.
- 13) Basafaunako espezieak ikuskizunetan, jai herrikoietan eta bestelako jardueretan erabiltzea, bertan animalia horiek sufritu egingo badute.
- 14) Naturagune babestuetan txakurrak askatuta ibiltzeagatik kalteak eragitea.
- 15) Lege honek arautu bezala lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak gauzatzeko beharrezko diren jakinarazpenak ez egitea, eskualdatzearen prezioa edo funtsezko baldintzak ez esatea, edo prezioa eskualdatzean ordaindutakoa baino baxuagoa dela edo baldintzak ezarritakoak baino kostu txikiagokoak direla adieraztea.
- 16) Naturagune babestuetako seinaleak edo instalazioak berariaz aldatu edo suntsitzea.
- 17) Publizitaterako edo hedapenerako bitartekoak erabiltzea, lege honetan ezarritako arau-hausteren bat egitera bultzatzen badute.



## c) Arinak

- 1) Pertsonak edo ondasunak lekualdatzeko edozein motatako ibilgailu motordunak edo mugitzeko halakoen beharra dutenak naturagune babestu batean aparkatzea, baimendutako lekuetatik kanpo.
- 2) Naturagune babestu batean bizikletekin edo antzeko ibilgailuekin horretarako ezarritako bideetatik eta baimendutako kasuetatik kanpo ibiltzea.
- 3) Naturagune babestu bateko erabileren araudiari kasu egin gabe nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edota arrantzako jarduerak egitea, beti ere, titulu honetan ezarritako arau-hauste astunagoren bat ez badakarte.
- 4) Naturagune babestuetan espresuki baimendutako tokietatik kanpo kanpatzea.
- 5) Baimendu gabeko eremuetan, edo eremu horiei edo bertako espezieei kalte eginez, zaratak, argia nahiz argi-keinuak egitea, eta edozein energia mota igortzea -termikoa, dardarazkoa, elektromagnetikoa, infrasonikoa eta ultrasonikoa-.
- 6) Ornogabe, onddo, basafritu, egur, goroldio, liken edota sendabelar eta landare aromatikoak biltzea, jarduera hori arautzen duen araudia errespetatu gabe.
- 7) Naturagune babestu batean publizitaterako kartelak jartzea, edo zaborra, txatarra edo bestelako hondakinak metatu edo isurtzea.
- 8) Naturagune babestu batean txakurrekin ibiltzea uhalarekin lotu gabe, horretarako baimendutako momentu eta tokietatik kanpo.
- 9) Naturagune babestu bat zaintzeaz arduratzen diren langileen edo Lege honek ezarritakoari jarraikiz ikuskaritzak egiteaz arduratzen direnen jardunari aurka egitea.
- 10) Aurrez baimen administratiborik izan gabe, naturagune babestuen izenak - lege honetan ezarritakoak- edo haien anagramak salerosketarako, publizitaterako edo irabazi-asmoa duten antzeko jardueretarako erabiltzea.



- 11) Naturagune babestu baten antolamendu- edo kudeaketa-araudia errespetatzen ez dituen edozein jarduera egitea, ez badu kalifikazio astunagorik.
- 12) Lege honetan ezarritako betebeharrak errespetatzen ez dituen edozein jarduera egitea, ez badu kalifikazio astunagorik.

### 98. artikulua Zehapenen zenbatekoa

1. Natura Ondarea eta Biodibertsitateari buruzko Legean (abenduaren 13ko 42/2007) tipifikatutako arau-haustek bertan ezarritako zenbatekoekin zehatuko dira.
2. Lege honetan tipifikatuta dauden arau-haustek honela zehatuko dira:
  - a) Oso astunen kasuan, 90.001 eurotik 2.000.000 euro arteko isuna edota hiru eta bost urte bitartean natura-ondarearekin edo ingurumenarekin zerikusia duen euskal administrazio publikoko edozein diru-laguntza publiko jasotzeko debekua.
  - b) Astunen kasuan, 3.501 eurotik 90.000 euro arteko isuna edota bat eta hiru urte bitartean natura-ondarearekin edo ingurumenarekin zerikusia duen euskal administrazio publikoko edozein diru-laguntza publiko jasotzeko debekua.
  - c) Arinen kasuan, 200 eurotik 3.000 euro arteko isuna.

### 99. artikulua Arau-hauste eta zehapenen mailaketa eta zehaztapena

1. Lege honetan ezarritako isunen zenbatekoa mailakatzeko kontuan hartu behar dira arduradunaren inguruabarrak, bere asmoa, parte-hartzea eta lortutako onura, egindako arau-haustek gizarteari zenbateraino eragin dion eta zer kalte sortu duen, arau-haustek errepikatu diren, bai eta ingurune naturalean egindako kalte edo hondamena itzulgarria izan ote daitekeen ere.
2. Naturagune babestuak izendatzeko arauak Lege honetan ezarritako arau-hauste edo zehapenen taulan zehaztapenak nahiz mailaketak sartu ahal izango dituzte, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko Legean (urriaren 1eko 40/2015) xedatutakoaren arabera.



### 100. artikulua Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa

1. Lege honetan oso astun bezala sailkatuta dauden arau-hauste administratiboak bost urte ondoren preskribatzen dira; astunak, hiru urte ondoren; eta arinak, urte bete igaro ondoren, arau-hauste jarraitu edo klandestinoen kasuko zenbaketa-arauen kalterik gabe.
2. Arau-hauste oso astunak egiteagatik ezarritako zehapenak bost urte ondoren preskribatzen dira; astunak, hiru urte ondoren; eta arinak, urtebete igaro ondoren.

### 101. artikulua Leheneratzea eta kalte-ordaina

Zehapenak ezartzea bateragarri izango da arau-hausleari berak aldatutako egoera berriz ere jatorrizkora leheneratzeko eskatzearekin, baita sortutako kalte eta galerak ordainaraztearekin ere.

Beharrezkotzat joz gero, xede horretarako behar adinako abalak, fidantzak edo beste berme batzuk eratzea eskatu ahal izango da, ezarritako neurriak beteko direla bermatzeko.

### 102. artikulua Eskumena

Foru-organo eskudunei dagokie zehapen-prozedurak hastea, bideratzea eta ebaztea, Urdaibai Biosfera Erreserbarako erregelamenduz ezarritakoaren kalterik gabe.

### 103. artikulua Zehapenen jakinarazpena.

Lege honetako arau-hauste oso astunen edo Natura Ondarea eta Biodibertsitateari buruzko Legean (abenduarien 13ko 42/2007) aurreikusitako onoriozko zehapen-ebazpenak zehapenak ezartzeko eskumena duten agintariak argitaratuko dituzte, laburpen gisa egoitza elektronikoan eta dagokion Aldizkari Ofizialean, administrazio-bidean irmoak direnean.



Argitalpenak arduradunaren nortasuna, egindako arau-haustea, ezarritako zehapena eta eskatzen zaizkion leheneratze eta kalte-ordainen laburpena barne hartuko ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak ingurumenarekin lotutako arau-hausteen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro bat sortuko du. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak pertsona fisiko edo juridiko arau-hausleak erregistratuko ditu, ebazpen irmoaren ondoren.

#### 104. artikulua Jurisdikzio penalarekin konkurrentzia

1. Arau-haustek delituak edo faltak izan badaitezke, administrazioak jurisdikzio-organo eskudunari pasako dio erruduntasun testigantza eta ez du zehapen-prozedurarekin jarraituko harik eta agintaritza judizialak epaia eman arte.
2. Deliturik edo faltarik ez dagoela erabakiz gero, Administrazioak aurrera jarrai dezake zehapen-prozedurarekin, jurisdikzio penalak frogatutzat jo dituen egintzak kontuan hartuta.

#### 105. artikulua Hertsapen-isunak

1. Zehapen-prozedura ebazten duen organoak edo, kasuaren arabera, sortutako kalte eta galerengatik ordaindu eta leheneratu beharrekoa beste prozedura batean erabaki duen organoak hertsapen-isunak ezartzea adostu ahalko du. Isun horiek, batetik bestera, agindutakoa betetzen hasteko nahikoa denbora utzita errepikatuko dira, arau-hausleek ez badituzte leheneratzeko edo kalteak ordaintzeko eginbeharrak betetzen.
2. Hertsapen-isun bakoitzaren zenbatekoak hauek dira:
  - a) Leheneratzea arau-hauste oso astun baten ondorio bada: 4.000 euro.
  - b) Leheneratzea arau-hauste astun baten ondorio bada: 1.500 euro.
  - c) Leheneratzea arau-hauste arin baten ondorio bada: 600 euro.Obligaziodunak ordaindu ezean, hertsapen-isunak premiamendu-bidez exijituko dira, jakinarazi zirenetik hogeita hamar egun baliodun igaro ondoren.
3. 1. apartatuan ezarritakoa gorabehera, organo horrek, ohartarazpena egin ondoren, leheneratzeko eginbeharren betearazpen subsidiarioa agindu dezake,





arduradunaren kontura, kaltea larria denean bereziki. Gastu, kalte eta galeren zenbatekoa behin-behinean ordain daiteke, betearazpenaren aurretik, eta behin betiko kitapena ondoren egin.

## **106. artikulua Ehiza, arrantza eta mendietako arau-haustekak**

Apirilaren 13ko 1/1989 Legean, Ehizaren Legean (martxoaren 17ko 2/2011) eta mendien legerian aurreikusitako arau-hauste administratiboak naturagune babestu baten mugen barruan gertatzen badira, ehuneko ehunean handitzen da legeria horietan jasotako arau eta irizpideen arabera dagokien zehapenaren zenbatekoa.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### ***Lehen xedapen gehigarria. Biotopo babestuen araubidea***

Eusko Jaurlaritzaren akordio bidez, Lege hau indarrean jartzean deklaratura dagoen biotopo babestu bakoitzaren izena naturagune babestuen tipologia egokienera egokituko da, 39. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izen berria izateak ez du esan nahi biotopoaren deklarazio-dekretua aldatzeko prozedura izapidetu behar denik.

Tipologia berrietara egokitzeko prozesua naturagune babestu baten deklarazio-dekretuaren bidez edo, kasuaren arabera, Baliabide Naturalak Antolatzeke Planaren bidez ere egin daiteke.

Natura-erreserba izena hautatzen bada, akordioak aldi berean dagokion Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana egiteko prozedura hasteko agindu behar du.

Abiatutako akordioa Aldizkari Ofizialean argitaratzen den momentura arte, Biotopo Babestuek izen hori mantentzen dute.

#### ***Bigarren xedapen gehigarria. Aparteko zuhaitzen araubidea***

Lege hau indarrean jartzean deklaratura dauden aparteko zuhaitzak natura-monumentutzat joko dira juridikoki.



***Hirugarren xedapen gehigarria. Argitaratu gabeko naturagune deklaratuak  
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea***

Lege hau indarrean jartzen denetik urte beteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da aurrez argitaratu ez diren naturagune babestuen zerrenda, dagozkien mugaketa kartografikoekin.

***Laugarren xedapen gehigarria. Oztopoen eraispena***

URA - Uraren Euskal Agentzia, Lege hau indarrean jarri eta urte beteko epean, 27. artikuluan aipatutako plana idazten hasiko da. Natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak onartuko du plana.

Lurralde Historikoen eta udalerriek helburu bereko planak idatziko dituzte beren eskumenekoak diren azpiegiturei dagokienez.

***Bosgarren xedapen gehigarria. Espezie katalogatuei aplikatu ahal zaizkien  
salbuespenak***

74. artikuluan jasotako baimena natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak hartuko du, xedea Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden espezieak direnean.

***Seigarren xedapen gehigarria. Espezie jakin batzuen kudeaketa eta ustiapena***

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko habitat naturalen eta basafauna eta basaflorearen kontserbazioari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren V Eranskinean agertzen diren fauna eta flora basatiko espezieen aleak naturan biltzea eta haien ustiapena kudeatzea bateragarria izan behar da espezie horiek kontserbazio-egoera onuragarri batean mantentzearekin.



***Zazpigarren xedapen gehigarria. Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011  
Legea aldatzea***

Ehizaren Legearen (buruzko martxoaren 17ko 2/2011) 36. artikulua idazketa honako hau izango da hemendik aurrera:

«Debekatuta dago beruna duen munizioa edukitzea eta erabiltzea ehizan eta kirol-tiroan, jarduera horiek honako eremu hauetan egiten direnean: nazioarteko garrantzizko hezeguneei buruzko hizarmenaren zerrendan jasotako hezegunak, LPSko inbentarioko 2. eta 3. taldeetan sailkatutako hezegunak edo naturagune babestuetako hezegunak. Era berean ezin izango da munizio hori erabili igarobide ekologikotzat sailkatuta dauden ur-bideetatik ehun metrotik beherako eremuan.»

***Zortzigarren xedapen gehigarria. Natura-intereseko eremuak***

Lurraldea antolatzeko eta hirigintzako araudiaren esparruan, toki-erakundeek natura-intereseko eremuak deklaratu ditzakete, hala, lurralde- eta hirigintza-planeamenduak kasu bakoitzerako ezartzen duen babesa izan dezaten. Ezingo dira natura-intereseko eremu deklaratu naturagune babestu baten barruan dauden lurraldeak.

***Bederatzigarren xedapen gehigarria. Legearen ezarpenari buruzko txostena***

Europar Batasuneko araudiak eskatzen dituen txostenen kalterik gabe, natura-ondarearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, lau urtetik behin, Lege honen ezarpenari buruzko txosten bat argitaratuko du.



## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### *Lehen xedapen iragankorra. Hiriguneetan baso-masak areagotzea*

7. artikuluko a) letran xedatutakoari jarraikiz, toki-administrazioek dagozkien planak onartuko dituzte Lege hau indarrean jartzen denetik lau urteko epean.

### *Bigarren xedapen iragankorra. Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren kategorietara egokitzea*

Lege hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, dagoeneko deklaraturik dauden naturagune babestuak Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren irizpideen arabera kategoria baliokidera egokituko dira.

### *Hirugarren xedapen iragankorra. Izapidetze-planak egiteko prozedurak*

Lege hau indarrean jartzean hasierako onespina zuten plan eta programak apirilaren 15eko 1/2014 legegintzako dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginak ezarritako prozedura egin beharko dute.

### *Laugarren xedapen iragankorra. Itxinako mendigunea babesteko araubidea*

30. artikuluko 4. atalean xedatutakoaren arabera, Itxinako mendiguneak biotopo babestu izaera galtzen du. Desklasifikazio horrek ondorioak izango ditu behin betiko onartzen den eta Gorbeia Parke Naturalaren Baliabide Naturalak Antolatzeko Planean argitaratzen den momentutik aurrera. Argitalpenak barne hartuko du Itxinako mendigunearen babeserako tratamendu berezi bat. Plan horrek mendiguneak parke naturalaren barruan duen mugaketa eta zonifikazio zehatza ezarri beharko du, baita erabilera onartuen, debekatuen eta baimengarrien erabileren araubidea ere, interes geomorfologikoen, hidrogeologikoen eta flora-, fauna- eta paisaia- interesen arabera.



### ***Bosgarren xedapen iragankorra. Igarobide ekologikoen Euskal Katalogoa***

Lege hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean Igarobide Ekologikoen Euskal Katalogoa argitaratuko da, dagokion kartografiarekin.

### ***Seigarren xedapen iragankorra. Izapidetzen ari diren zehapen-prozedurak***

Lege hau indarrean jarri aurretik abiarazitako zehapen-espedituentzako prozedura hasi zenean aplikatu zitzaizkien araudiaren arabera izapidetuko dira, prozedura amaitu arte. Lege honetan jasotako xedapenak onuragarriagoak badira, ordea, hau izango da aplikatuko den araudia.

### ***Zazpigarren xedapen iragankorra. Espezie mehatxatuen kategoriak egokitzea***

Lege hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, Dekretuan «bakan» eta «interes bereziko» gisa katalogatuta agertzen diren espezieak egokitzeko prozesua abiatuko da, «galzorian» edo «kaltebera» kategorietan sartu ahal izateko edo, kasuaren arabera, Lege honen aurreko Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogotik atera eta babes bereziko erregimenean dauden espezieen euskal zerrendan sartzeko.

### ***Zortzigarren xedapen iragankorra. Natura Kontserbatzeko Aholku Kontseilua - Naturzaintza***

Lege honek Ingurumeneko Aholku Batzordeari esleitzen dizkion funtzioak Natura Kontserbatzeko Aholku Kontseiluak - Naturzaintzak beteko ditu, lehenengo organoaren osaera eta funtzioak eguneratzen ez diren bitartean.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**



1. Indargabetuta gelditzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua, zazpigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren kalterik gabe.
2. Indargabetuta gelditzen da Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorraren (otsailaren 27ko 3/1998) II. Tituluko I. Kapitulua.

### **AZKEN XEDAPENAK**

1. Eusko Jaurlaritzak emango ditu Lege hau garatzeko xedapenak, eta zehapenen zenbatekoak eguneratuko ditu.
2. Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratu eta lau hilabetetara jarriko da indarrean.